


BALEIKE

MAITE MANZISIDOR

**EMAKUMEA
GAZTEA
BASERRITARRA**





429€

8kg
1200rpm
Inverter motor

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

BOSCH
WUQ24468ES



499€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

8kg
1200rpm
Inverter motor

SIEMENS
WUQ12Q48XES

INOX

ORDAINDU
12 HILABETEAN
Interesik gabe



599€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

186X60 zm
NO FROST

INOX

BALAY
3KF6674XE

A++



TXURIA
549€

BALEIKE
%5
BAZKIDEA

NO FROST
186x60 zm


BOSCH
KGN36VW3A

A++

TIEN 21



www.endañoetazumaia.com



BALEIKE 279

2018-IRAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA

Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|---|
| 5 | Aurrena Gorka Zabaleta
<i>Egin ttap gurekin!</i> | 26 | Bazkide kluba |
| 6 | Hitz tantak Juan Luis Romatet
<i>Santiago Banda</i> | 28 | Plazan bazan |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Gorka Zabaleta
<i>Izarrak koloretakoak dira</i> | 31 | Osasuna Rosa Azkue
<i>Bizkarreko mina</i> |
| 10 | Hainbat aburu Ibon Manterola
<i>"...handik aurrera euskaraz hasi ziren"</i> | 33 | Heziketa Izar Arregi
<i>Ikasturte berriaren aurrean</i> |
| 11 | Errematea Sara Iburguren
<i>Lokarriekin</i> | 34 | Zientzia eta ingurumena
Gorka Zabaleta
<i>Carlos Briones: "Platanoak, antxoak eta geu, denok gara LUCAren oinordeko"</i> |
| 12 | Elkarrizketa Izaskun Urbieta Esnal
<i>Maitte Manzisidor: "Baserrian belaunaldi gazteen falta da arazoa eta horrek baldintzatuko du nekazaritza turismoa ere"</i> | 38 | Orduan bai Imanol Azkue
<i>Bakame eta Bitoren Gorostola Iribar</i> |
| 16 | Ilustrazioa Jexux Eizagirre eta Daniel Carballo
<i>Galtzaileak</i> | 43 | Kultura Juan Luis Romatet
<i>The Grace of Dionysus, katarsiaren ordua</i> |
| 18 | Erreportajea Maria Maya Manterola
<i>Surfaren oasietatik bueltan</i> | 44 | Literatura Asier Arakistain
<i>Idazle sindikalista</i> |
| 22 | Erretratua Maialen Odriozola
<i>Virginia Maffassanti, mugaren eta bertutearen artean</i> | 45 | Nire txanda Jose Maria Azkue
<i>Mitoak apurtzen</i> |
| | | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Patologia</i> |

BALEIKE

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea
Foronda Kultur Etxea.
Odieta, 2.
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Lehendakaria

Xabier Azkue Ibarbia
Zuzendaria
Gorka Zabaleta
gorka@baleike.eus
Erredaktore taldea
Juan Luis Romatet

Izaskun Urbieta
Maria Maya Manterola
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia
Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
publizitatea@baleike.eus

Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
administrazioa@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 800 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

k
kutxabank

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskok
Baratzkiak eta surretz prestatutako jakiak

Zuberoa plaza, 1
tel. 943.06.23.08



Ale 8 20750 Zumaiako Groukoi
tel: 943 14 31 22 • fax: 943 14 31 30
a3@a3zumai.com • www.a3zumai.com



Agurtzane Okindogia

Embera 2 • 943-86 21 52



L I D E R U D E N D A

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-88 15 89



Alkoholikoen serido eta lagunen elkartera
Tel. 650 28 59 63
Ordutegia: astelehenetik, 20:00-22:00
larunbatetik, 19:00-21:00



• Eskaiola
• Pladur-a

606 72 61 88
943-14 32 61



Amatzen.com


tel. 943-54 21 04
amatzen@amatzen.com



www.ardantzabide.com

Dorika, Txorierri Auzoa, 4
tel. 943.80.75.72

Arañakoa, San Juan, 43
tel. 943.86.14.31



943-13388



ARRUTI BARRIO URSUA
94341 31 00
9176 33441 (943) 0000



Plintza berrietatik eta aligerario-nagari

Ardantzabideko, 16b - Tel. 943-50 91 09



Autos Zumaiako Bosch Car Service

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztas

Sabatzak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorren mekanika
Hode sistemen

Unita plaza 3-5
Tel. 943-86 14 85
autoszumai@bosch-bao.com



www.azkueactive.com

Txorierri Auzoa 4, barria tel. 943 79 04 08 | 943 06 20 91
info@azkueactive.com tel. 943 06 27 40



Bakur
KALUPEN ETA ARDUTUPEN ZIBRITZIAK S.L.

San Isidro, 25
30749 Arrosa

tel./fax 943-14 30 08
www.prima-akabat.com



Babiarri-
Moldi Gomendio

Bermeil, 7, berria - tel. 943-14 33 10
www.basodi.com

943-14 33 10 (943) 14 33 10
LANTZARITZA 943 72 87 07 FAX 943-14 33 08



Basusta
erretxetza • asanblat

José Blázquez

Azuloa Buzaberrera, 31
38730 Zumaiako Zipitziak
Tel. 943-86 33 23
943 34 64 31
www.basusta.com



•KALEFAKZIOA
•ZORU BERO-EMAIKIA
•GAS INSTALAZIOA
•GAS NATURALA
•BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Kortu Irabiztegiaren, 8
20750 ZUMAIKO - Gipuzkoa
tel. 943-14 30 09

Egin ttap gurekin!



GORKA ZABALETA

Gure aspaldiko ametsetako bat zen: "Eskaintzen ditugu elkarrizketak eta erreportajeak *Baleike* aldizkarian; eskaintzen ditugu bideoak eta argazki bilduma zabalak *baleike.eus* webgunean... Bietako onena bilduko duen produkturik lortuko al dugu inoiz?". Duela zazpi bat urte edo, liluratu ginen *National Geographic*-ek argitaratzen duen aldizkari digital multimediarekin: paperezkoa bezain bikaina; baina, gainera, idatzizko erreportajeak bideoekin, argazki bildumekin (zergatik bizpahiru argazkirekin konformatu?), soinuekin (ederra da argazkietako txorien kantua entzutea!), marrazki bizidunekin edota grafiko dinamikoekin osatuta. Izugarria iruditu zitzaigun, eta hasi ginen tankera hartako *Baleike* batekin amesten...

Noski, segituan ohartu ginen hura handiegia zela bakarrik egiteko: eduki multimedia oso onak sortu behar direlako, teknologia berrietan aditua izan behar delako eta inbertsio handi samarra eskatzen duelako. Albo batera utzi behar izan genuen orduan, baina erabat baztertu gabe, aukeraren zain.

Eta aukera iritsi da, azkenean. Nondik eta Kataluniatik. Han *Esguard* aldizkari multimedia argitaratzen dute, katalanez. Urte batzuk badaramatzate dagoeneko, proiektua egonkortuta dago, eta pentsatu zuten euskaraz ere egin zitekeela antzeko zerbait. Joan den urtean Euskal Herrira etorri ziren bazkide bila, Tokikom ezagutu eta elkarrekin Euskal Herriko lehen aldizkari digital multimedia egitea adostu genuen. Abentura berri honetan, Goiena (Debagoiena), Anboto (Durangaldea), Baleike, Tokikom eta Esguard abiatu gara, bide oparo baten hasiera baino ez dela sinetsita.

Baina zer da *Ttap* aldizkaria? Non irakur daiteke? Telefono mugikorretan eta tabletetan irakurtzeko, ukitzeko, ikusteko eta entzuteko aldizkaria da *Ttap*. Zure mugikorreko aplikazioen dendan (*google playedo app store*) "ttap aldizkaria" bilatu, deskargatu (doan da) eta, irailaren 21etik aurrera, astero-astero izango duzu aldizkaria kiosko itxurako aplikazioan –dagoeneko zero zenbakia argiratuta dago–. Gai nagusia pertsona ezagun bati egindako elkarrizketa izango da, eta edukia idatziz, bideoz eta audioz izango duzu eskura. Gainera, argazki galeriak, ilustrazio dinamikoak, teknologia, moda, zine eta literatura aholkuak aurkituko dituzu, besteak beste; betiere, irudiekin eta soinuarekin osatuta. Eta izen handiko hainbat idazleren artikulua: Ander Izagirre, Arantxa Urretabizkaia, Pilar Kaltzada, Joseba Sarrionandia, Unai Iturriaga, Onintza Enbeita..

Bai, badakit, *Ttap* ez da *National Geographic*-en tankerako *Baleike* aldizkaria; horra oraindik ez gara iritsi. Baina hasi gara urratsak egiten. Eta orain badakigu posible dela, bidelagun bikainak dauzkagulako. Zuek ere egin ttap gurekin! ■■■

**IRAKURTZEKO,
UKITZEKO, ENTZUTEKO
ETA IKUSTEKO
ALDIZKARIA DA 'TTAP'**

Santiago Banda

TESTUA JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA ARNAITZ RUBIO APREA

Gaztea zela Bachen *Tocata eta fuga* entzun zuen eta organoaz maitemindu zen. 38 urteko zumaia honen bizitza organoari lotuta doa Flysch organo jaialdiaren sortzaileetakoa ere bada.

Zer adinekin hasi zinen musika munduan?

8 bat urte izango nituen. Forondan klaseak ematen zirela dut gogoan, eta hara joaten hasi nintzen. Bi urte egin nituen han. Baina nik pianoa jo nahi nuen, eta han ez zuten ematen. Zumaian bazegoen akademia bat, Carmelo Mendizabalena, eta han hasi nintzen pianoa ikasten.

Organora egin zenuen salto. Zer zuen organoak pianoak ez zuena?

Lagun baten etxera joaten nintzen diskoak entzuterat. Garai hartan dena nuen deskubritzeko. Pieza bat ea ezagutzen zuen galdetu nion. Bachen *Tocata eta fuga* zen. Diskoa jarri zidan eta txundituta geratu nintzen. Zinta batean grabatzeko eskatu nion eta etxean egunero entzun nuen. Maitemindu egin nintzen eta organoa jo nahi nuela esan nuen. Donostiako Kontserbatoriora joan nintzen eta 16 urterekin hasi nintzen ikasten.

Noiz arte jarraitu zenuen ikasketekin?

Kontserbatorioa amaitu ondoren, klabezina ikasi nuen Musikenen. Hura bukatu ondoren Alemaniara joan nintzen organoa ikastera eta orain arte. Baina hau etengabea da. Kurtsoekin eta klaseak ematen beti ikasten da.

Zer behar da organista izateko?

Organoa jotzeko gaitasun berezi batzuk behar dira. Organoa haize instrumentua da; pianoa, berriz, sokak dituen perkusio instrumentua. Teklatua jotzen badakizu bidea eginda daukazu, baina organoa eskuekin eta oinekin jotzen da eta koordinazio handia behar da.

Gogorutzen al duzu zein izan zen eman zenuen lehen kontzertua?

Zumaiako parrokian izango zen. Kontzertuetan beti izaten da beldurra, hasieran gehienbat, baina nire kasuan beste sentsazio bat izan nuen:

boteretsu sentitu nintzen, orkestra bat nire eskuetan izango banu bezala. Hala sentitzen naiz organoa jotzean, zuzendari bat banintz bezala.

Orkestra bat eskuetan..., magikoa ere bada.

Bai, bai. Tutuei eusten dien kutxa hermetikoari *sekretu* ere deitzen zaio. Hor barruan dagoenak bihurtzen du magikoa. Tutu nimiñoak daude, eta baita oso handiak. Handiena 12 metrokoa izan daiteke eta txikiena zentimetro gutxi batzuetakoa.

Organo bereziren bat jotzeko ametsik ba al duzu?

Hori beti. Holandan eta Alemanian dauden antzinako organoetan jotzea geratzen zait. Ikaragarriko soinua dute, eta, aldi berean, oso polita.

Elizarekin eta mezarekin lotzen da organoa...

Organoa Kristo aurreko V. mendean asmatu zuten eta elizetan Kristo ondorengoko XIII. mendean sartu zen. Hau da, sortu eta 18 mendera. Azkenaldian badago erlijioarekin halako talka bat, urrutiratze bat, eta organo kontzertuak ere bide horretatik eraman nahi dira. Baina, noski, organoaren estetika erlijioarekin lotuta dago. Kontzertuetan bestelako piezak ere jotzen ditugu, organorako egindako orkestren moldaketak, adibidez.

Kostaldeko herrietako organoak ezagutzera emateko Flysch jaialdia sortu zenuten.

Bai, eta aurtan hirugarrenkoa egin dugu. Organo oso onak ditugu hemen, elizetan aurki ditzakegun beste objektuak bezain onak. Bisita gidatuetan erretaulak eta kaperak erakusten dituzte, baina organoak ez. Zergatik ez? Gehienak XIX. mendekoak dira. Ideia bat egiteko, Stradivarius biolinen mailakoak dira.

Egunen batean lortuko al da Casio batekin XIX. mendeko organo baten soinua lortzea?

Hori lortu da. Ez da gauza bera, noski. Orain urte batzuk hasi ziren organo historikoen tutu bakoitza grabatzen. Gero horiek instrumentu elektronikoetan sintetizatu dituzte. Eliza askotan organoak kendu eta teklatu modernoak jarri dituzte jada. Zoritxarrez. ■■■



Izarrak koloretakoak dira

ARGAZKIA ETA TESTUA: GORKA ZABALETA

Ez dakit zuek, baina nik denbora asko neraman gauzez izarrei begiratu gabe. Ia ahaztua neukan lurrian etzan eta iluntasunean dir-dir egiten duten argi puntu horiei begira sentitzen den txikitasuna. Terapia bikaina gure eguneroko martxaren ajeei aurre egiteko.

Aurten oporretan hartu dut tartea pare bat gauzez izarrei begira gozatzeko eta, bide batez, argazki kamerarekin jolasteko. Alboko argazkia Teruelgo Bronchaes herrian dago egina, Sierra Alta tontorretik (1.850 metro inguru), goizeko bostak aldera. Paraje haietan apenas dagoen herriguneetako argi kutsadurarik eta ikusgarria da zenbat izar bereiz daitezkeen zeruan. Ilargia ere ezkutatuta zegoen eta hori ere abantaila handia da izarrak bistartzeko.

Baten batek galdetu dit argazkikoak ea pertseidak ote diren. Ez dira pertseidak. Izarrek 20 minutuko tartean egiten duten bidearen arrastoa da (zuzenago, esan beharko nuke Lurrak izarrekiko egiten duen bidearen arrastoa dela, Lurra baita mugitzen dena). Kamera tripodetan jarri eta hogeituz (nire kasuan 30 segundoko 40 argazki dira, denak segidan) itxaron ondoren irudi hau lortu nuen. Ondo begiratzen baduzue, izarren koloreak bereizten dira argazkian: arrasto urdinak, laranja eta horiztak daude, besteak beste. Zerura begiratzen dugunean izar guztiak zuriak iruditzen zaizkigu baina, jakin badakigu, izarrak koloretakoak direla: gorriak, urdinak... Argazkian kolore horiek aurkitzea ezusteko ederra izan zen. ■■■■

Datuak: *Olympus OMD EM-1 Mark II; 12mm; f2.8; ISO 1.600; 30"x40 argazki (Live Composite).*





“...handik aurrera euskaraz hasi ginen”

Imajinatu bi egoera hauek: **BAT.** Ia egunero bezala dendara sartu, eta "egunon!" esan ondoren, hau eta bestea eskatu dizkio dendariari. Betiko laguna da. Eta berriketan jarraitu du, seme-alaben ikasketez eta abenturez. Ohiturari jarraituta, lau hitz euskaraz, beste guztia erderaz. Dendariak ere ia beti halaxe egin izan dio, nahiz eta biak etxean euskaraz hazi zituzten gerra ondoren sekulakoak pasatako guraso abertzaleek. Baina oraingo honetan, dendariak ia dena euskaraz erantzun dio, eta oso gutxi erdaraz. Bost minutuko jarduna azkar pasa da eta "egun ona pasa!" esan diote elkarri. Dendariak erabakia hartua dauka: hemendik aurrera, euskaraz dakitenekin, euskaraz.

BI. Ostiralero bezala, ordenagailua martxan hasi bitartean, astebururako plana kontatzen hasi zaio ondoko mahaiko lankidea. Larunbat goizean alaba batek eskubaloia, iluntzean besteak kontzertua... Eta igandean, egun pasa Kontxako estropadetara. Dena ordenagailuaren eta mahai gainean dauden dokumentuen hizkuntza berean: erdaraz. Lankidea entzun ahala, enpresako euskara irakaslearen esanarekin akordatu da ("saiatu lankideei euskaraz ulertzen"). Baina euskaraz ederki asko dakiten lankideek ez diote gehiegi laguntzen: dena erdaraz! Hala ere, ostiral horretan, zerbait pasa da: lankidea, pixkanaka-pixkanaka, euskaraz hasi zaio. Egoera artifizial xamarra sortu da hasieran, pixka bat kostatzen,

baina konturatzerako, lankideak euskaraz jarraitzen zuen, nahiz eta berak gaztelaniaz erantzun. Ordenagailua espabilatu denerako, proiektuen koordinatzaileak bilerara deitu ditu bi lagunak. "A ze sorpresa eman didan honek: oso ondo ulertzen du euskaraz!". Bilera erdara hutsean izan beharrean, euskaraz ere egin dute, lehenengo aldiz.

Zumaian horrelako egoerak ez dira egunero gertatzen, kostatzen delako erdaraz hitz egiteko ohiturari buelta eman, eta euskaraz hitz egitera edo ulertzea ohitzea. Baina beste alde batetik, gertaera ezezaguna ere ez da zumaia arantzat: denok ezagutzen dugu baten bat, erdaraz asko egitetik euskaraz asko egitera edo ulertzera pasa dena.

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



SARA IBARGUREN

Lokarriekin

Autobusaren zain geltokian nagoen honetan, aspertuta nire zapata berriei begira geratu naiz. Zerbaitek atentzioa eman dit bat-batean, lokarriak dira. Askotariko lokarriak ikusi izan ditut, baina gaurdaino ez diet aparteko arretarik jarri. Gure etsaiak ere izan daitezke beharbada, ondo lotuta eraman ezean estropezu eginda eror gaitzekeelako akaso. Hala esan zuen behin lagun batek, futboleak jokatzeko ari zela estuegi sentitzen zuen botetako lokarria askatu eta aurkari batek zapaldu zionean: “Ez dakit etsaia nor den, aurkaria edo lokarri madarikatu hau!”. Beharbada ez zen konturatu etsaitzat zeukan lokarria gola sartzen lagunduko zion laguna izan zitekeela, ongi lotuta eraman izan balu.

Baina askotan gertatzen zaigu hori, bizitzako edozein alorretan. Etsaitzat daukaguna lokarriekin kateatuta uzten dugu, alde batera. Ez dugu ikusten, ordea, lokarri horiek beste era batera jartzen baditugu, lazo polit bat eginda, adibidez, etsaia lagun bihurtu daitekeela. Gauzei bere alde ona bilatu behar izaten zaie askotan, geure hobe beharrez. Mundu honetan askotariko lokarriak daude: gogokoenak bilatu eta horiei joko ematean datza bizitza, zapatetan ongi lotuta ditugula, min ez hartzeko betiere. ■

Hain zuzen ere, "Euskaraldia" deitzen den ekimenak horrelako ohitura aldaketak nahi ditu bultzatzen, eguneroko jardunean euskara gehiago erabiltzeko helburuarekin. Euskaraldia Euskal Herri osoan egingo da azaroaren 23tik abenduaren 3ra. Erakunde publikoek eta euskararen aldeko eragile sozialek bat egin dute ekimena antolatzeko. 11 egun horietan kontua ez da izango euskararen alde agertzea, baizik eta euskaraz hitz egitea eta ulertzea ahal den gehien. Euskal Herri osoan.

Euskaraldian parte hartzeko, izena eman behar da, irailaren 20tik aurrera. Euskaraldia antolatzen lan taldeak sortu dira, Zumaian ere bai, eta izen ematearen eta gainontzeko kontuen berri laster emango da. Herritar batzuek “Ahobizi”

modura emango dute izena: euskaraz ulertzen dutenei euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute. Aurrean dagoena euskaraz moldatzen den ala ez den ez dakitenean ere, lehenengo hitza euskaraz egingo dute Ahobiziek. Beste herritar batzuek, berriz, “Belarriprest” modura jardungo dute: euskaraz dakitenei esango diete euskaraz egiteko beraiekin (“Niri euskaraz”). Belarriprest batzuek euskaraz egingo dute eta beste batzuek ez, norbere gaitasun eta ohituren arabera.

Zumaiarrok era guztietako arrazoiak dauzkagu euskaraz gehiago egiteko. Denak dira zilegi eta aberasgarri. Ohitura poliki-poliki aldatu nahi duenak, hauxe du aukera. Hasteko, 11 egun euskaraz, herritarren eta erakundearen babes zabalarekin. ■



"Baserrian belaunaldi gazteen falta da arazoa eta horrek baldintzatuko du nekazaritza turismoa ere"

MAITE MANZISIDOR NEKAZARIA ETA NEKATURREKO ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDEA

Maite Mancisidor Santa Klara baserriko hirugarrena da. 2004an eman zuen baserriak nekazaritza turismorako pausoa, eta, orduetik, bisitari asko izan dituzte etxean. Hala ere, nekazaritza dute, abeltzaintza, zehazki, baserriko aktibitate nagusia.

Testua: **Izaskun Urbietta Esnal**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Maite Manzisidorrek nekazari lanak egiteaz gain, etxeko nekazaritza turismoan ere laguntzen du. Iaztik, Nekatur elkarteko (Euskadiko Nekazalturismo eta landa etxeak) zuzendaritza batzordeko kide da, eta aitortu du denbora honetan asko ikasi duela.

Nola egin zuen Santa Klarak turismorako saltoa?

Santa Klara Zumaiako lehenengo eraikinetako bat da, eta oso egoera kaxkarrean zegoen.

Katalogatutako eraikina zenez, aldamenean beste eraikin bat egiteko baimena eman ziguten. Ama aurretik Tomas apartamentuetan lan egindakoa zen, eta etxe berriaren dimentsioak kontuan hartuta, nekazaritza turismorako jartzea bururatu zitzaion.

Zer ekarri zuen aldaketa horrek?

Gu oso etxe zaharrean bizi ginen, ez genuen urik ere. Guri esker auzoan ura sartu zen; eboluzioa izan zen guretzat, baita auzokoentzat ere. Lehen esan dudan bezala, ama sektore honetan lan egindakoa zen, eta bazuen esperientzia. Nik 12 urte nituen eta ilusioarekin gogoratzen dut hasiera. Gainera, apustu honi esker, ama etxean aritzen zen lanean, gehiago ikusteko aukera genuen... 2004ko uztailaren 8an ireki genuen nekazaritza turismoa, udarako. Orain ia urte osoan daukagu jendea, baina lehen uda izaten zen sasoi onena. Beraz, garai onean zabaldu genuen.

Bisitarien jatorriari dagokionez, izan da aldaketarik urte hauetan guztietan?

Hasieran, madrildarrak, kataluniarrak eta euskaldunak etortzen ziren. Orain, berriz, andaluziarrak dira asko. Egia esan, Espainia osoko jendea etorri da azken urteotan. Frantsesak, alemaniarrak, finlandiarrak... ere ohiko bezeroak dira. Azkenaldian, gainera, Asia aldetik etorritako bisitariak ari dira ugaltzen; batez ere japoniarrak.

Zenbat egunetarako etortzen dira bisitariak?


Uztaila eta abuztuan, 5-7 egunen artean. Iraila oso irregularra izaten da, eta normalean 3-4 egunetarako etortzen dira.

Zerk erakartzen ditu?

Jende gehiena gure kokapenagatik eta etxetik dauden bistengatik etortzen da. Asko harritzen dira etortzen direnean. Horretaz gain, animaliak dira beste elementu garrantzitsu bat. Etxean dauden pertsonen bisitak antolatzen dizkiegu animaliak ikusteko. Bide batez, behiak nola biltzen diren, zer ematen zaien jateko eta abar arakusten diegu. Ekintza horiek umeekin etortzen direnei gustatzen zaizkie, batez ere. Azkenik, bezeroekin dugun gertutasuna eta harreman berezia ere asko eskertzen dute.

Zer estilotako jendea etortzen zaizue?

Hasieran mendia eta natura maite zutenak hasi ziren etortzen. Krisi momentuan, berriz, hoteletako jendea edo hoteletako zerbitzu atsegin zutenak etorri ziren. Garai hartan nekazaritza turismoaren booma zegoen, eta merkeago zenez,



horrelako jendea hasi zen etortzen. Zein zen arazoa, ordea? Ez zutela animaliarik entzun nahi, belar usaina ez zutela atsegin... Baina, hau azken finean, baserri bat da. Orain berriro bueltatu gara jatorrietara, eta eskertzen da.

Euskal Geoparkean zaudete kokatuta. Zer alde on eta txar ekarri dizue?

Turistak ekartzeko ondo dago, baina gu nekazariak ere bagara eta hor eztabaida handiak ditugu. Algorri inguruan gure belardi zati bat dago, eta iaz, esaterako, ordu erdi baino gehiago pasa nuen zaborra jasotzen. Badakit ez dela Geoparkearen culpa jendeak zaborra botatzea. Arazoa jendearen heziketa faltan dago.

Horregatik, uste dut arautu egin behar dela, isunak edo zerbait jarri.

2016ko urrian, *Game of Thrones* teleaileko zazpigarren denboraldiko eszena batzuk grabatu ziren, Itzurunen. Jende andana joan zen zuen etxe ingurura. Nola bizi izan zenuten?

Grabaketak egin baino askoz ere lehenago hasi zen kontua guretzat; izan ere, lantaldeko batzuk etorri ziren gure etxera zer egin nahi zuten kontatzera. Grabazioa hasi zen egunean Ertzaintza etorri zen. Beraien ordena grabazioa babestea zen, eta horretarako jendea menditik atera behar zuten. Noski, irudiak hartzera etorri zirenak gure zelaietan sartu ziren, eta beste batzuen lurretan itxiturak eta atakak ere puskatu zituzten. Inork ez zuen lursail pribatueta sartzeko baimenik eskatu. Bi aukera genituen: Ertzaintzari bere lana egiten utzi eta gure lurak babestu, edo beste aldera begiratu eta baserriko lanak egiten jarraitu, egunero bezala. Arazorik ez genuen nahi, eta bigarrena aukeratu genuen. Egia esan, esperientzia xelebrea izan zen, ez ohikoa.

Nekatur elkarte 1991. urtean sortu zen nekazaritza turismoko etxeak babesteko.

Hotelek beraien elkarte dute bezala, guk geurea daukagu, eta, egia esan, gure sektorearentzat zerbait lortzeko, denok bat eginik errazagoa da: arauen berri jakiteko, elkar laguntzeko, baten zalantzak bestearnak direlako, konbenioak egiteko...

Marketin eta publizitate arloan ere asko egiten dugu webgunearen bitartez. Denok gaude sarean han, eta erreserbak ere bertan egin daitezke. Aurten, berrikuntza bat ere sartuko dugu, eta da ostatua hartzeaz gain, aktibitateak erreserbatzeko aukera egongo dela.

Zuzendaritza batzordean zaude iaztik. Zer moduzko esperientzia da?



Egia esan, pila bat ikasten ari naiz. Batzordean Gipuzkoako lau eta Araba eta Bizkaiko hiruna pertsona gaude. Galdetu egiten dute nork nahi duen sartu, eta normalean ez du inork nahi izaten. Animatu nintzen, eta, beno, esperientzia ona izaten ari da. Sektorearen ezaugarri eta egoera benetan nolakoa den ezagutzeaz gain, elkarteko kide bakoitzaren beharrak eta nahiak jakiten ditugu. Anitzak gara, eta bakoitzaren egoeretara moldatu behar dugu.

Azkenaldian elkartean asko landu duzue etxebizitza turistikoaren gaia. Zein da arazo nagusia?

Nahiko iskanbila daukagu kontu horrekin, azkenean, zuzenean eragiten diolako gure sektoreari. Gutaz gain, hotelei eta, batez ere, pentsioei eta apartamentuei. Horregatik, hotelen elkartearekin elkarlanean ari gara gai hau lantzen. Eskatzen duguna da etxebizitza turistikoak arautzea. Ezin dena egin da besteok izugarritzko arau gogorak izan, eta horiek ia ezer ere ez. Azken batean, exigentzia gutxiago dituzte, eta horrek eragin du elkartean batzuk pentsatzea nekazaritza turismoa edo landa etxea utzi eta etxebizitza turistiko izatea.

Pentsatu da etxebizitza turistikoena landa eremuan jartzea?

Eusko Jaurlaritzako politikari batzuk eskatzen zuten landa eremuan etxeak egin eta horietan etxebizitza turistikoak jartzea. Baina guk galdetu genien: zer legedirekin? Nahi dutena egingo dute? Guk eskatzen duguna zera da: landa eremu batean irekitzen den negozio turistikoak nekazaritza turismo edo landa etxea izatea. Gure ustez, eta batez ere gure identitatea babesteko, landa eremuetan zerbait landatarrak egon behar du.



**"BEZEROEKIN DUGUN GERTUTASUNA
ETA HARREMAN BEREZIA ASKO
ESKERTZEN DUTE BISITARIEK"**

**"GEOPARKEA TURISTAK EKARTZEKO
ONDO DAGO, BAINA GU NEKAZARIAK
ERE BAGARA"**

Orain dela urte batzuk nekazaritza turismo eta landa etxeak, hotelak bezala, puntuatu edo klasifikatu egin nahi ziren. Zuen kasuan, izarrak erabili beharrean, galburuen bidez.

Elkartean asko borrokatu genuen arau horren aurka. Oker ez banago Patxi Lopezen legealdian izan zen hori. Baina guk aldarrikatzen genuena zen oso zaila zela gu puntuatzea. Hau da, nekazaritza etxe bati ezin zioten gehiago puntuatu igerilekua eta spa bat izateagatik. Zerbitzu gehiago dira, bai, hobe askorentzat, baina horiek ez dira landa eremuko bereizgarri edo ez dira gure identitatea adierazten dutenak. Orduan, zer egin behar zuten: gure identitateko elementuak puntuatu? Baratze bat? Zuhaizti bat? Azkenean, gelditzea lortu genuen.

Baserría galbidean doala esaten da azken urteetan. Ondorengorik ez izatea benetakoa al da?

Bai, eta elkartean ere sumatzen da hori. Batzordean ni naiz gazteena, esaterako. Egia esan ez dakit zenbat baserri geldituko diren hemendik bost urtetara. Gure etxearen inguruan, adibidez, asko jubilatzeraz doaz, etxeko emakumeak hartuko du titulartasuna, baina horiei ere hemendik hamar bat urtera jubilatzeke ordua iritsiko zaie. Zorionez, gazte batzuk bagaude, baina hori ez da ohikoa nekazaritza munduan. Egunero egin behar da lan, eta hori gazteei ez zaie gustatzen, normala da.

Gainera, gaur egun norbaitek sartu nahi badu lehen sektorean lanean, erraztasun gutxi daude. Makineria eta instalakuntzak, esaterako, oso garestiak dira. Eta, noski, horrek guztiak baldintzatuko du nekazaritza turismoa. Nekazaritza etxeak derrigortuta daude baserriko aktibitatea izatera, eta baserría galtzen bada... Landa etxeak, berriz, ez dute lehen sektorean lan egiteko titulartasunik behar, baina horiei ere eragingo die.

Emakumea oso garrantzitsua izan da baserrietan...

Euskal Herria baserri munduan oso matriarkala izan da beti, baina uste dut nekazaritzan bien beharra dagoela, bai emakumeena, baita gizonezena ere. Nik, orain ere, gauza batzuk egiteko anaia behar izaten dut. Azkenean ez da dena muturrera eramane behar. Egia da nekazaritza turismoan, kasu askotan, behintzat, emakumeak hartu izan duela lan horiek egiteko ardura eta gizona gehiago ibili dela traktorearekin lanean edo ukuiluan. Baina gure etxean, adibidez, aita bizi zenean, oheak egiten ere ibiltzen zen. Nik uste talde lana beti egin daitekeela. ■■■

Galtzaileak

TESTUA: JEXUX EIZAGIRRE PORTILLO

ILUSTRAZIOA: DANIEL CARBALLO

Urtea zen 1895garrena. Estropadak Donostian. Donostian 16 urte, besterik ez estropadak antolatzen. Urte hartan, zumaiarrak esperantzak handiarekin joanak. Bazuten motiborik. Inguruko koadriletan, indartsuenetakoa ziren.

Han agertu ziren, irteera puntuan, bandera eta premioaren bila, bost trinau, besterik ez, txanda bakar batean. Getariatik bat, Oriotik

bi, Pasaitik bat eta bosgarrena zumaiarrena. Patroia, *Iraundegui*. Nahiz eta entziklopedietan *Zaundegui* agertzen den. Zumaiarrak gorriz jantzita, lehen aldiz (gaur egun bezala) estropaden historian. Beste lauak txuriz jantzita, garai haietan ohitura zen bezala.

Balizan aurretik sartu ziren, alde handiarekin. Garai hartako egunkariek ere hala jaso zuten.

Baina, atera azkenak, alde

handiarekin. Eta garai hartako egunkariek ere hala jaso zuten. Zumaiarrei baliza zuria egokitu, patrioiak kataratak izan, ikusi ez bandera zuria, eta jota pasa baliza, erabat. Hankekoa konturatu. "*Baina, han atzean laga degu-ta!*".

Garai hartako egunkari batek "los de Zumaia con el natural cansancio venian los *ultimos*". Hala ere ez ziren azkenak iritsi. Azken txanpan, bat laga zuten atzetik. Orioko trinauetako bat. Trinau hartako patrioiak Donostiako bandera irabaziko zuen, handik urte batzuetara.



Orioko beste trinauko patroiak fama eternua lortuko zuen, handik sei urtera, balea harrapatuta.

Irabazleak getariarrak gertatu ziren, *Katxapeo* zumaiarra hanketik zela. *Katxapeo* getariarrekin ibiltzen zen itsasoan, eta itsasoko koadrilarekin atera zen. Izan ere, garai haietan gehiago zen itsasoko koadrila, eta ez herriko selekzioa (nolabait esatearren).

Bigarren pasaitarrak, eta zumaiarrak bi oriotarren tartean.

Bazkaldu dute. Kanta ederrak bazkalondoan. Sartu dituzte,

trinauan, Zumaitik joandako mutil koxkorrak, eta Zumaira arraunean. Bide osoan ez zioten utziko kantuari. Napolitanak batik bat. *O Sole mio*, eta horrelakoak.

Iritsi dira arranplara, ilargitan, eta han ez zen inor ere ageri. Ordurako herrian zabaldua omen zen, azkenak izan zirela. Gezurrak beti egin ohi du hegan.

Erabat lur jota zeudela, zer da eta, hemen non azaltzen den, itzaletik irtenda, herritar bat (Txamel?) pontxearekin. *Hartu motelak merezi dezute eta*. Eta hala goxatu zituen lur jotako mutilak (agianigoal esan


beharko genuke “itsasoak jotako mutilak”).

Hurrengo egunetan, eta urtetan, itsasora irtengo zuten, egunero, egunekoa kentzeko itsasoari. Eta haietako batzuk, itsasoan, galduko ziren.

Itsasoak ere egunero bitzta bat kentzen baitu, ordainetan.

Baina, nik jakin nahi nuke koadrila hura noiz sentitu zen galtzailleago, ala estropada bukatuta gero, ala arranplan inor ere agertu ez zitzaieanean.

Eta jakin nahi nuke pontxe hark ea goxatu zituen eskuetan zeuzkaten bandera eta premio haiek ahaztuta lagatzeraino, unetxo batez besterik ez bazen ere. ■





Surfaren oasietatik bueltan

Ikus-entzunezko bat osatzeko Artikoko olatuak surfeatu ondoren, Marokoko eta Mendebaldeko Saharako basamortuko kostara jarri zuten jo puntuan Pablo Bordas bilbotarrak. Lagun argazkilaria batekin eta kamerari batekin garatu zuten plana, eta Vicente Romero eta Josu Alcantara surfariekin osatu zuten taldea.
Testua: **Maria Maya Manterola**. Argazkiak: **Nicolas Pina eta Aljaz Babnik**.



Tan Tanen (Maroko), olatuei begira.

Nire lagun batzuen lagunak dira. Ez dakit nolatan, baina beraiekin joateko deitu zidaten”, dio Alcantarak. Bidaiaren gaineko xehetasun guztiak eman zizkioten, eta bi aldiz pentsatu gabe eman zuen zumaiarrak baiezkoa. Bidaian hartutako irudiekin egin nahi zuten ikus-entzunezkoaren dossierra prestatu, bidaia diruz laguntzeko babesleak bilatzea eta materiala lortzea izango ziren hurrengo hilabeteetako lanak.

Yamaha markak utzi zizkien bi motor. Bilbon jaso zuen Alcantarak Romero laguna, eta Madrilen hartu zuten Marrakecherako hegaldia. Bertan elkartu ziren argazkilariarekin eta motorrak eraman behar zituenarekin: “Dronak zeramatzaten, eta hegazkinean sartu ezin direnez, kotxean egin behar izan zuten bidaia”.

Bi taxi gidariri alokatu zizkieten Land Rover autoak, Atlas mendilerroan. “Goraino igo eta etxean hartu gintuzten. Harrera bikaina egin ziguten, baina asko harritu ninduen kontu batek: emazteak ezkutuan izan zituzten gu bertan izan ginen denbora guztian”, dio Alcantarak.

Agadir ingurutik hegoalderantz joan ziren lehenengo egunetan. Erosotasunetik irtenda, abentura zuten helburu: “Eremu turistikoa da Agadir. Hegoalderantz abiatu ginen, eta lehenengo gaua



Talde osoa, gauez hartutako irudi batean.



Alcantara motor gainean, Tarfayan.



Bidaiaaren hasiera, Atlas mendilerroan.

Agadiretik 400 kilometrora egin genuen”. Surf egiten igaro zituzten hurrengo egunak. Hiru edo lau orduz gidatzen zuten egunero, Mendebaldeko Saharako kostarantz. “Errepideak txarrak ziren, estuak, zuloz beteak, hondarra sartzen zen autoan... Motel joan behar izaten genuen. Mendebaldeko Saharako kanpalekuetara zihoazen jakiz eta urez betetako kamioiak pasatzen ziren uneoro”.

Herritik herrira 200 bat kilometroko distantzia zegoenez, basamortura iristean, bi gauko geldialdiak egitea pentsatu zuten. “Erokeria hutsa izan zen. Surfeko oholak, kamerak, dronak, kotxeen atzetik zihoazen bi motorrak... uretara sartu behar genuen bakoitzean dena desmuntatu behar izaten genuen”.

Guztia prestatzen bi edo hiru hilabete eman ondoren, azkenean hasi zen Alcantara bidaiaz gozatzen: “Nire kanpin dendan bakarrik nengoen, kanpin denda zabaltu eta itsasoa ikusten nuen”.

Nolanahi ere, ez zen guztia espero bezala atera. Kotxe bat matxuratu egin zitzaion, gauez gidatzen ari zirela: “Etxera itzuli beharko ginela pentsatu nuen une batez”. Baina urduri jarri beharrean, lasai hartzea erabaki zuten. Bezperan arraina parrilan erreta jateko aukera izan zuten herrixkako lagunez akordatu eta haiei deitzea erabaki zuten: “Ehun kilometrora geunden ordurako, baina guregana etorri ziren laguntzera”. Azkenean, guztia kotxe batean sartu eta bidaiarekin segitzea erabaki zuten, beste kotxea han konpontzen utzita.

Mendebaldeko Saharako Tarfaya herrirantz jo zuten orduan. “Abandonatutako barku baten ondoan olatuak zeudela ikusi nuen lehenago Interneten. Dokumentala grabatzeko leku aproposa zela pentsatu genuen”. Bidean militarren postuekin egiten zuten topo bost kilometroan behin. Lotarako gelditu zirenean, han ezin zutela lorik egin esan zieten. Hamar kilometro beharantz jarraitu eta militar gehiagorekin egin zuten topo. “Urteko azken eguna zela, sua



Hondoa jotako ontziaren ondoan surfean.

egin nahi genuela, lasai afaldu, eta zalaparta pixka bat egingo genuela azaldu genion bati. Han jendaurrean ez dute edaten, baina bi alkohol botila genituen, eta militarrek aukera aprobeztatu zuen gurekin egon eta trago bat hartzeko". Urdaiazpiko zatitxo bat eta *yatecomo* bat, horixe izan zen Gabon Zaharreko afaria.

Ezustekoa hurrengo egunean hartu zuten, olaturik ez zegoela ikusi zutenean. Hegoalderantz jo zuten berriz ere: "Google Maps aplikazioan antzematen dira olatuak. Han begiratzen genuen nora jo erabakitzeko". Basamortuko errepidea utzi behar izan zuten kostarantz joateko. "Trabatuta gelditzeko beldur ginen", gogoratu du Alcantarak. Kostara iristen ari zirela txabola batzuk ikusi zituzten: "Lau plastikoz eginiko etxetxoak ziren. Baldintza oso gogorretan bizi dira". Baina olatu bila joan eta berriro kale. Ordura arte bi saio egiteko aukera baino ez zuten izan eta gehiago ez arriskatzea erabaki zuten. Iparralderantz jo zuten.

"Hondarrezko zabalguneko erraldoi bat genuen parez pare. Motorrak hartu genituen, eta basamortuko hondarraren gainean ibili ginen txandaka. Bidaia gogorra izan zen, eta barruan nuen guztia eman nuen une hartan", dio Alcantarak. Bi gau igaro zituzten Tarfaya inguruan, eta bi egunez surf egiten aritzeko aukera izan zuten, baina zailtasunak izan zituzten berriro: kostaldea babestua zegoela azaldu zieten militarrek, eta soilik ordu erdiko baimena eman zieten uretara sartzeko.

Bidean konpontzen utzitako autoa jaso eta berriro Atlasera jo zuten, taxi gidariengana. Madrilerako hegaldia hartu zuen ondoren Alcantarak, baina uste baino beranduago iritsi zen Zumaiara: "Izugarrizko elurtea izan zen, eta hotel batean geratu nintzen lotan".

Abenturaren filma Madrilgo Surf Film Festival-en aurkeztu dute, Europako hainbat hiritan erakutsiko dute, eta ondoren Internet bidez zabaltzeko asmoa dute. ■■■



Tan Tan herrian, surfeatzen.

**"LAU PLASTIKOZ
EGINIKO ETXETXOAK
ZIREN. BALDINTZA OSO
GOGORRETAN BIZI
DIRA"**

Mugaren eta bertutearen artean

Virginia Maffassanti, akrobata eta yoga irakasle baten lanak

Malgutasuna, sormena eta irudimena izan ditu beti bidelagun. Airean, trapeziotik, teletatik edota arotik zintzilik; lurrian, berriz, esterillaren gainean. Bietan, oztupoak pizgarri bihurtu ditu Virginia Maffassantik (1983, Argentina). Akrobata eta yoga irakaslea da Maffassanti, eta bere ofizioaren nondik-norakoak kontatu dizkio *Baleikeri*.

Testua: **Maialen Odriozola**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

SED (edo Ehlers-Danlos) izeneko sindromea diagnostikatu zioten Maffassantiri 21 urte zituenean, eta orduan hasten da, hain zuzen ere, ofizio honen erretratua. Ehunei eragiten dien patologia onbera da, Maffassantik azaldu duenez, baina egunerokoan eragina duena. Hala, denbora behar izan zuela aitortu du “bizimodu normala” ezin izango zuela eraman onartzeko. Minak bere bizitzaren parte izango zirela ulertu zuenean, modu inkontzientean, bere gorputza ulertzen eta bere egoera zerk hobetu zezakeen ikasten hasi zen.

Medikuek ariketa fisikoa egitea gomendatu zioten. Sindrome hau duten pertsonen ohikoa baino malgutasun handiagoa daukatenez, inpaktu handiko kirolak, korrika egitea edota pisua hartzea, adibidez, ez zaie komeni; bai, ordea, yoga, akrobaziak eta antzeko jarduerak. Inoiz ez luke pentsatuko zenbat aldatuko zuen horrek. Orditik akrobaziak eta yoga bi zutabe izan dira beretzat. Osasuntsuago egoten lagundu diote; are gehiago: bere ofizioaren parte ere bihurtu dira.

Lagun batek telak probatzera animatu zuenean zabaldu zitzaion Maffassantiri akrobazien mundua. Geroztik, akrobazia piezak, ikuskizunak

eta tailerrak egin izan ditu. Burua beti sortzen, ez da arraroa hiru ideia batera lantzen aritzea: “memoria bisuala daukat eta Arte Ederrak ikasi nuen; agian, horregatik, fotogramaz fotograma muntatzen ditut proiektu nire irudimenean”. Gauzak horrela, ideia bat bururatzen zaionean, musika pentsatzen du, objektuak aukeratu (aroa, trapezioa, telak...), ariketak asmatu eta jantziak zehazten ditu. Elementu guztiek osotasun bat irudikatu behar dutela dio. Gero, entseguen txanda dator: orduak eta orduak sartzeko garaia.

Akrobaten jarduna, ordea, fisikoki oso exigentea da, eta Maffassantik bere sindromearen eraginez uste baino ondorio gutxiago jasan arren, ezin die akrobaten emanaldi denboraldiei edota akrobazia klase kopuru handiei aurre egin, lesioak izaten dituelako. Lesio horiek, gainera, luzera begira bere gorputza kaltetuko luketelakoan dago. “Oreka baten bila aritu naiz, nire entrenamendu, klase eta sormen prozesuekin jarraitu, baina akrobazia ikuskizunak eta klase kopuruak gutxitzeko”.

Horregatik, akrobazien esparrua yogaren munduarekin bateratzea erabaki zuen 2014an, Aire Zentroa zabaldu zuenean. Lehendik modu pertsonalean praktikatzen zuen yoga, baina orduan ekin zion modu profesionalean



Irimara



irakaskuntzari. Klaseak ematea beretzat ere irakaspén berezia izan zela dio, besteen gorputzak sentitu eta ulertzeko gai izatera iristeko. Gaur egun, helduei zein haurrei ematen dizkie klaseak. Helduen kasuan, yoga terapeutikoa ere eskaintzen du, arazoren bat dutenei bideratuta. Haurdun dauden emakumeentzat ere badu zerbitzu berezitua, erditze aurreko eta ondorengo yoga klaseak eskainiz. Horrez gain, haur zein helduentzat aireko yoga klaseak ere ematen ditu.

Edozein delarik aukeratutako modalitatea, guztietan, ongizate integralaren kontzeptuari garrantzi handia ematen dio Maffasantik. Yogaren lehen premisa entzuketa propioa dela dio, “norbere gorputzaren inguruan kontziente izatea”. Disoziazio gisa deskribatzen du gorputzekin egun dugun harremana: “polita jartzen dugu, ile-apaindegira joaten gara, baina ez dugu arretarik jartzen nola zapaltzen dugun edota nola arnasten dugun”. Hala, yogaren abantaila nagusi moduan hauxe deskribatzen du: esterilla gainean ikasi eta sentitzen dena norberak bere egunerokoan aplikatu dezakeela. “Nire intentzioa ez da inor Buda izatera iristea. Emozioz betetzen nauena da nire ikasleek yogako klaseetan ikasi dutena beren eguneroko bizimodua hobetzeko erabiltzea”, azaldu du.

Ildo horretatik, Maffasantiren yoga irakaskuntzan pisu handia dauka bereziki arreta jartzeak nola tratatzen dituen norberak bere burua eta ingurua; “Ahimsa” edo ez-biolentziaren printzipioarekin lotzen du: sentitzen dena entzun eta horrekin atseginak izatea. Oro har, ordea, uste du ez dela horretarako behar beste denbora hartzen. Presaka bizi den gizarteetan, eginbeharrez itota, ez dagoela ongi ikusita denbora galtzea dio, baina berak ezinbestekotzat jotzen du: “Egunerokoa gauzez betetzen dugu eta geure buruari ez diogu begiratzen. Horregatik,

gelditzeak argitasuna ematen digu. Geure buruari erreparatzeak, gainera, ondokoari begiratzen ere laguntzen digu, enpatia izaten”.

Izan ere, Maffasantiren iritziak, yogak inguruarekin dugun loturan ere arakutzen du. Ildo horretatik, yogaren batasunaren ideia du hizpide, eta batasun horrek unibertsorekin lotura esan nahi duela dio, inguratzen gaituenarekin eta norbere buruarekin. “Horrela pentsatzeak berekin dakar, gainera, ohartzea zeinen txikiak garen,

Virginia Inés Maffassanti

- **Adina:** 35 urte.
- **Ikasketak:** Arte Ederretan Lizentziatura eta Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza ikasketak (amaitu gabe).
- **Lanbidearekin** lotutako formazioa: aireko akrobaziak trapezioan, telak eta aroa, aireko trapezioa; yoga; aireko yoga; yoga terapeutikoa; erditze aurreko eta ondorengo yoga.
- **Akrobata eta irakaslea ez banintz...** hezitzailea izango nintzateke, Argentinan hala nintzen... edo ilustratzailea, artista plastikoa... Zuzenbidea ere oso gustuko dut. Dena den, praktika, ikaskuntza eta sormenik gabe ez dut irudikatzen nire bizitza.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** marraztea, musika entzutea, irakurtzea, telesailak eta pelikulak ikustea, lagunekin hitz egitea, surfa egitea, entrenatzea, etxean egotea, nire lagunarekin gozatzea, yoga egitea, sortzea...



puntutxo bat besterik ez. Eta horrela ikusita, noski, gure arazoak ere ez dira aurrez uste bezain handiak”.

Barrura begirako bidaia bat

Bere lanak aurkakotasun propioei aurre egiten lagundu diela uste du Maffasantik. “Eraldaketa eta onarpen prozesu bat bizi izan dut, nire gorputzarekin adiskidetu eta berriz baloratzeko bere muga, min eta ertz guztiekin”. Era berean,

aitortzen du bere esperientziak lagundu egiten diola ikasle bakoitzak dauzkan kargak ikusten.

Akrobata moduan bere lanbideak osasuntsu egoten eta bere burua adierazten laguntzen diola azaldu du; yogak, berriz, mundua ulertu eta sentitzeko baliabideak eskaintzen dizkiola. “Nire mundua orain esperientzia eta irakaspen hauek partekatzea da. Ondo egotea posible dela aldarrikatu nahi dut, guztiok merezi dugulako ondo egotea”. ■■■

Galdona
 denda:
 Mendara marinel, 1
 tel.: 943-14 33 46
 biltegia:
 Jose M^a Kortá Industrigunea
 Pab. A6.1, 2-5 mod.
 tel.: 943-86 11 17
 fax: 943-86 13 30

industriarako nahiz etxerako
 era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

EGIN ZAITEZ BALEIKEKO BAZKIDE

Baleike komunikazio proiektua babestuko duzu urtean 40 euroko ekarpena eginda.

- Zumaiak **komunikabide propioa** izatea lagunduko duzu.
- Euskarak** Zumaian ere merezi duen bozgorailua izango du zure ekarpenari esker.
- Aldizkaria jasoko duzu hilero **etxeko buzoian**.
- Baleikek argitaratzen dituen **bestelako argitalpenak** jasoko dituzu doan. Haurrentzako aldizkari berria, liburuak...
- Bazkide klubeko **txartelarekin hainbat abantaila** izango dituzu: deskontuak herriko dendatan, zozketetan parte hartzeko aukera...

Bazkide egiteko bideak:

Webgunean: baleike.eus/bazkidekluba

E-mailez: administrazioa@baleike.eus

Telefonoz: 943-86 15 45

ABANTAILAK

Baleikeko bazkide guztiek jasoko dute Baleike Klubeko txartela. Deskontu eta abantaila hauek erabiltzeko txartela aurkeztu beharko da.

DESKONTUAK

ERTZ INFORMATIKA: %2ko deskontua.

ARRUTI MODA: %5eko deskontua.

IRUITZ ILEAPAINDEGIA: Analisi kapilarra doan.

UKENDU PARAFARMAZIA: %5eko deskontua.

EKIN ELEKTRIZITATEA: %10eko deskontua lanparetan.

EGOKI BITXIDENDA: %10eko deskontua erlojuetan, urre eta zilarrezko bitxietan.

IRIONDO OPTIKA: Haurren ikasketa arazoak eta begi alferra saihesteko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua eta estimulazio neuroauditiboa doan.

ENDAÑETA ETXETRESNAK: %5eko deskontua.

GOLDEN GATE AKADEMIA: %20ko matrikulazioan.

A3: %5eko deskontua.

TALAI: ostiraletan, afariarekin, kafea eta txupittoa doan.

ARTAZA KANPINA URBASA: %10eko deskontua.

AIZPURUA LIBURUDENDA: Liburuak %5 merkeago.

OSKARBI KIROLDENDA: %5eko deskontua.

KALARI JATETXEA: Igandeko afaria %10 merkeago.

TRAPAIA: Igandeko bazkariarekin kafea doan.

KUKITXA: Erosketak etxera doan.

PRIMAVERA PIZZERIA: Pizzak etxera doan.



ZOZKETAK

ONURA: Fisioterapiako lau bono.

ONGIZAN: Fisioterapiako lau bono.

GAINDITUZ: Lau bono.

OTEZURI KAFETEGIA: Bi tarta San Markos.

MANDALA PAPERTEGIA: Bost euroko bost bale.

ITZURUN TABERNA: Lau lagunentzako afaria hileroko.


BQD BIDAIAK: Lau bono.

YOANA ILEAPAINDEGIA: Hilean behin zozketa, ilea garbitu eta orraztu.

Eta gehiago: datozen hilabeteotan deskontuak eskainiko dituzten denda gehiago eta zozkatzeko opari gehiago lortuko ditugu Baleikeko Kluberako. Adi egon!


BiKiak

Zazpi irudi hauek berdinak dirudite, baina ez dira berdinak. Aurki itzazu elkarren kopia diren bi irudiak.



Itzala

Zure ustez, zer egin behar da Herri Urratsera joateko? Ba, hasteko eta behin, ondo gosaldu. Bilatu izatit zuzena ondoko mokadu oparo honi.



Mezu Kodetua

Zer dio Maripurtzilek? Iruditxo bakoitzaren ordez, jari dagokion hitza eta esatera zahar bat agertuko zaizu.

LABIRINTOA

Lagundu txakurrari bidea aurkitzen.

Hara, Fermintea
Bihurritxo,
zuntzetatik pila bat
kroketa gaxo.
Utzi behingoz jolasak
balkutietan,
Eta zaitze gailu gabe,
kantea

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Bizkarreko mina



ROSA AZKUE

ZUMAIAKO ANBULATORIOKO MEDIKUA

Bizkarreko mina bizkarraldeko giharren funtzionamendu okerraren ondorioa izan ohi da, eta ez du loturarik bizkarrezurreko gaixotasunekin. Nahiz eta denbora luze iraun, gehienetan kausa ezezaguna izan eta ez izan tratamendu azkar eta eraginkorrik, ez da etsi behar, egoerak irtenbidea baitu. Horretarako, gehiegizko atsedena ekidin behar da, ahalik eta bizimodu aktiboena izanez.

Honako hauek dira bizkarreko minarekin loturik dauden faktore arriskutsuenak: sedentarismoa, egoki ez esertzea, zenbait aktibitate fisiko edo kirolen praktika okerra eta minari beldur izatea.

Paradoxikoki, atsedena eta aktibitate fisikoaren murrizketak (minaren beldurrarengatik, bereziki) ez dira eraginkorrak eta aurkako emaitzak lortzen dituzte. Ariketa aerobikoa eta bizkarrezurra indartzeko ariketak egitea gomendatzen da, gutxienez astean 90 minutuz, betiere minik pairatu gabe eta intentsitate ertainean.

Egoera ezberdinetan agertzen da bizkarreko mina:

Haurdunaldian

Ohikoak dira lunbalgiak edota ziatika, bizkarraldeko giharrek sufritzen duten gainkargatik,

eta kontrakturak agertzen dira. Kontrakturak agertzen laguntzen duten faktoreak hauek dira, batik bat: abdomeneko giharren erlaxazioa, gluteoen potentzia falta, pisu igoera eta sedentarismoa. Indartze ariketak eta postura egokia mantentzea komeni da.

Adineko pertsonak

Zenbait kasu berezitan, adineko pertsonetan agertzen den bizkarreko minaren jatorria bizkarrezurreko alterazio organikoan egon daiteke. Hala ere, adineko pertsonetan izaten den minaren arrazoirik ohikoena jarduera fisikoaren murrizpena da.

Gomendagarria izango litzateke gehiegizko atsedena ekiditea eta ariketa egokiak egitea.

Sedentarismoa eta gainpisua

Sedentarismoa zein gainpisua bizkarreko minaren agerpena bultzatzen duten faktoreak dira. Frogatuta dago gutxieneko jarduera fisikoa mantentzeak, jarrera egokia mantentzeko arauak jarraitzeak eta bizkarraldeko giharren garapenak bizkarreko minen agerpena ekidin dezaketela.

Kirolariak

Oro har, kirola egiteak on egiten die bai gure bizkarrari, bai osasunari; beraz, guztiz gomendagarria da. Hala ere, kontuan hartu behar da egiten

dugun jarduerak giharren garapen egokia mantentzea eta erabilitako kirol materiala egokia izatea. Izan ere, horiek aintzat hartuz gero, zenbait kirolelan ager daitezkeen bizkarreko lesioak ekidindo lirateke.

Estresa

Estresak minaren agerpena areagotzen du, kontrakturen prebalentzia igoz eta minaren atalasea/ataria murriztuz. Gainera, minaren aurkako jarrera ezkorra izatera garamatza. Egoera hauetan, egokiena izango litzateke estresa sortzen digun egoera horri aurre egitea, komenigarria litzateke zenbait jarduera fisiko egiten hastea eta posturak egoki mantentzea.

Langileak

Frogatu egin da langileen minaren inguruko zenbait uste erdi ustel direla. Lanak sortutako bizkarreko mina eta horren tratamendua, atsedenean oinarrituak, ez dira sinesgarriak. Ebidentzian oinarrituta bizkarreko minaren agerpen eta jarraipenean, faktore mekaniko, mediko zein psikosozialek eragiten omen dute. Beraz, bizkarreko mina prebenitzeko modurik eraginkorrena izango litzateke bizkarraldeko giharren garapen egokia, bizi ohitura ahalik eta aktiboan lantzea eta mantentzea, eta jarrera ezkorrek alde batera uztea. ■■■

PUBLIZITATEA



DOIA
Julio Boobide, 2
943-57 49 85



ilarzi
Alai suzategia, 2
Tel: 943-24 50 20



INPERNUPE ELKARTEA
Erribera kalea 16. Tel. 943-88 15 23



Irianda optika
Kantauri plaza, 8. Zumai. tel.: 943 86 04 88
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84



IRUDI OTS
Itxakizun profetikako sopia
eta argi-plazen aplikazioak
Hona eta indigitatutako orriak
tel. 943-83 16 32 irudiots@irudiots.com



IRUITZ ILEAPAINDEGIA
San Telmo, 12
Tel.: 943-85 07 60



ORRAZTEGI ZUMAI
943-86 20 83



JUARRISTI jatetxea
Arrainak eta haragiak sukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua
Bitorri kalea, 10 tel. 943-05 05 77



KABI



Kaittermik S.L.
Arrotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20 Tel./fax: 943-86 03 20



kalari
Upelari plaza, 8
tel. 943-88 25 17



kuttun lentzeria
erribera kalea tel. 943-11 79 36



LABARRA TABERNA ZUMAI
est. 2018
Ondarretxo plaza 5 Tel. 943-86 04 84



malaur



Marina
CREISSANTERIA
pizzak
hamburgesak
bokatok...
Beltzore Etxe, 2 Tel. 943-86 22 46



MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea
Urola plaza, 31 tel. 943-80 06 74 - 943-85 15 88
mendiondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



"Muagi"
errehabilitazioa
kiral medikuntza
fisioterapia
NPS: 33497 Alunbr 3 Urteak tel. 943-86 10 01

Ikasturte berriaren aurrean



IZAR ARREGI

GURASO ESKOLAKO PSIKOLOGOA

Ikasturte hasierarekin etapa berri bat hasten da ikasleen bizitzan. Ziklo aldaketa egokitzen zaienentzat are nabarmenagoa da jautzia, baina guztioi eragiten digu, neurri batean edo bestean. Eskolaz kanpoko jarduerak aukeratzeko momentua ere izaten da, eta zentzuz jokatzeko jakin behar da. Horregatik, egoera berrira egokitzeko hilabetea izaten da iraila; eskolako ordutegia murriztagoa izaten da, baina horrek ere sortzen du buruhauste bat baino gehiago.

Egia da iraila ez dela erraza, haurren eskolako adaptazio garaia etxean sekulako anabasa sortzen duelako. Umeak pixkanaka egokitu behar du, baina gurasoek zortzi orduz egin behar dute lan... Familian desadaptazioa gertatzen da, eta umeentzat ez da erraza. Etxea desantolatuta ikusten dute. Egun batean amonarena bazkaltzera, hurrengoan eskolan...

Ikasturte berri bakoitza eskailera maila bat baldin bada, esan genezake ziklo aldaketa solairu oso bat dela, adin aldaketarekin dagoelako lotuta. Askotan, eraikinez aldatzen dituzte, edo korridorez. Erronka handia da ziklo aldaketa. Gure seme-alabak zurrumbilo horretan daudela aintzat hartu

behar dugu gurasook, eta egokitze denbora behar dutela ulertu.

Haur txikiena da aldaketa bortitza jasaten duen beste kolektiboa. Etxetik haurtzaindegirako urratsa handia da beraientzat. Kontuan izan behar dugu haurrek berez ez dutela eskolara joateko premiarik, berez gurasoen behar bati erantzuteko eramaten ditugula. Haurrentzat onena litzateke egokitzen pixkanaka egitea, emaitza hobea izaten baita. Baina hori nola ezkondu gurasoen beharrek... Askotan aitona-amonak bete behar izaten dute gurasoen papera, eta hori ez da irtenbide egokiena, baina gai hau beste atal batean landuko dugu.

Ikasturtea errepikatzea egokitzen zaien ikasleak ere aipatu nahi ditut. Horientzat aukera ona izan daiteke aurrez egindako akatsak zuzentzeko. Maila berean ariko dira, baina ikaskide berriak izango dituzte eta hori beti da aukera bat iraganeko rolak aldatzeko. Alferraren edo pailazoaren papera bereganatua bazuen, ikaskide berriekin errazago izango zaio hori atzean uztea.

Tutore aldaketa ere izaten da askotan ikasleen kezka. Are gehiago tutore berriak gogor fama baldin badu... Kezka horri aurre egiteko, gure haurrei esan behar diegu tutore horrek

sekulako zortea duela bera bezalako ikasle bat egokitu zaiolako, ikasle saiatua eta oso ona delako. Horrek lagunduko dio eskolara jarrera onarekin joaten. "Tarteka errieta egingo dizu, baina hori da irakasle ona izan nahi duelako; amak ere egiten dizu errieta".

Edozein kasutan, garrantzitsua da espektatibak ondo lantzea. Urte berriarekin bezala, ikasturte berriaren hasieran erronkak eta helburuak jartzen ditugu, eta jakin behar da errealistak izaten. Helburu egingarriak eta motibagarriak behar dituzte, eta ondo planifikatuta. Lehentasunak zein diren ere garbi izan behar dugu. Gure alabak eskubaloian ere onena izan behar al du derrigor?

Eskolaz kanpoko jardueri neurria jartzea ere ez da erraza izaten. Nire aholkua da hiru baino gehiago ez aukeratzeko, bestela antsietatea sor daiteke (umeari bakarrik falta zaio yogan ere apuntatu behar izatea!).

Eta aholku bat eskolan gaizki dabiltzan haurren gurasoentzat: ez kendu haurrei hain gustukoa duen eskolaz kanpoko jarduera hori. Pilotan ona bada, utzi pilotan jokatzeko. Bere autoestimurako ona izango da. Hori kentzen badiogu ez diogu eskolan hobetzen lagunduko. "Zeozertan ona naiz", esango du, eta ideia hori ona da beretzat. ■■■



"Platanoak, antxoak eta geu, denok gara LUCAren oinordeko"

CARLOS BRIONES BOKIMIKARIA (MADRILGO UNIBERTSITATE AUTONOMOAN)

Bizia zer den, noiz, nola eta non sortu zen; Lurraz gain, beste planetaren batean ere bizirik ba ote den. Galdera horientzat erantzunak bilatzea da Carlos Briones zientzialariaren lana. CSICeko Astrobiologia Zentroan egiten du lan, NASArekin elkarlanean.

Testua eta argazkiak: **Gorka Zabaleta.**

Kimika hutsetik biologiarako jauzian omen dago biziaren misterioaren giltza. Bi gaiez, kimikaz eta biologiaz, asko daki Carlos Brionesek, eta, gainera, dakiena ulertzeko moduan kontatzeko gaitasuna du. Beheko plazako terraza batean hasi gara berriketan.

Zuek erantzun nahi dituzuen galderak ez dira nolanhikoak: zer den bizia, noiz sortu zen, nola, non...

Galdera handiak dira, bai; gizakiok geure buruari betidanik egindako galderak. Gauez, izarrei begira esertzen garenean, denok galdetzen diogu geure buruari: ba ote da izar haietan norbait niri begira? Galdera horiei erantzutea da gure lana, baina metodo zientifikoaren bidez. Geologiaz, biologiaz, kimikaz edota fisikaz dakiguna aplikatzen saiatzen gara ulertzeko zergatik hasi zen bizia gure planetan, noiz hasi zen, nolakoa zen planeta orduan, zerk eragin zuen kimika hutsetik biologia sortzea, bizia sortzea. Izan ere, izaki bizidunak kimika gara, baina kimika berezia. Biologiaren eta geologiaren arteko harremana ere aztertzen dugu, eta horretarako oso garrantzitsuak dira, esate baterako, Zumaiako labarrak. Hori guztia aztertzen dugu biziak gehiago jakiteko eta galdera segituan dator: hemen gertatu den prozesu hau unibertsoko beste lekuren batean gertatu al da?

Eta erantzunik ba al duzue?

Oraindik erantzun ziurrik ez... Bizia Lurrean sortzea txiripa hutsez gertatu den fenomeno bakarra al da? Edo, oinarritzko kimika bat ziurtatuz gero, posible al da Lurretik kanpo ere kimika horretatik bizia sortzea? Hala bada, bizia izango genuke unibertsoko beste zenbait lekutan. Zalantza hori oraindik hor dago. Baina, aldi berean, gero eta planeta gehiago ari gara ezagutzen: kalkulatu da hamar mila trilioi (22 zero laren atzetik) planeta daudela. Beraz, Lurrean gertatutakoa oso bitxia izanda ere, aukera asko daude beste planeta batzuetan ere bizia gertatzeko.

Zein dira ezinbesteko baldintzak bizia sor dadin?

Hiru gai behar dira. Lehena, ur likidoa; ezagutzen dugun bizi guztia uretan dago oinarrituta; ura disolbatzaile unibertsala da, oinarritzko erreazio kimiko asko gertatzen dira bere barruan, eta ez dago beste likidorik hainbeste aukera eskaintzen duenik. Bigarrena, kimika organiko da, karbonoz osatutako konposatuak; karbonoa da molekula handiak sortzeko gaitasun gehien duen elementua. Eta hirugarrena, energia iturri bat; izan daiteke planeta bati bere izarretik iristen zaiona, edo planetak berak sortzen duena (barruko beroa, adibidez). Beraz, leku batean ura, karbonoa eta energia baldin badaude, bizia egon daiteke. Hori da unibertsoan bilatzen ari garena.

Zerk definitzen du bizia? Zerk bereizten du izaki biziduna bizigabetik?

Galdera horrek ere buruhauste asko eragiten dizkigu. Bizia definitzeko ahalegina Aristotelesen garaitik dago mahai gainean. Dakiguna da izaki bizidun guztiok ezaugarri jakin batzuk dauzkagula: metabolismo bat daukagu (materia eta energia trukatzeko ditugu inguruarekin); ingurutik bereizten gaituen zerbait daukagu (geruza bat, larrua, azala...); eta, gainera, gai genetikoa daukagu (eboluzionatzeko gai gara). Hiru osagai horien konbinazioa da izaki bizidunak eta ez bizidunak bereizten dituenak. Badaude



Marteko izotzak iraganeko biziaren arrastoak gorde ditzakeela uste dute zientzialariek. WIKIPEDIA.

entitate batzuk horietako bat edo bi dauzkatenak, baina hirurak behar dira izaki bizidun izateko. Orduan, horrela definitzen dugu bizia: bizia sistema kimiko bat da, bere burua erreplikatzeko gai dena, eta ingurunearekin dauzkan harremanen bitartez eboluzionatzen duena.

Biziaren sekretua zein da, orduan?

Hiru ezaugarri horien konbinazioa. Mekanismo kimikoren bat gertatu zen posible egin zuena. Laborategietan ikertzen ari gara.

Zer edo nor izan zen LUCA?

Izaki bizidun guztiak konparatzen ditugunean ohartzen gara antzeko gauza asko dauzkagula. Eboluzioan atzerantz egiten badugu, denok jatorri berbera daukagula ikusi dugu. Platanoak, antxoak edota gu geu, denok gara LUCAREN oinordeko. LUCA (Last Universal Common Ancestor) deitu diogu lehen izaki bizidunari. Duela 3.800 milioi urte inguru sortu zen, Lurra planeta sortu eta handik ez denbora askora. Bakterio itxura zuen, eboluzionatzeko gaitasunarekin. Haren aurretik kimika baino ez zegoen.

Bizia posible egin zuten osagai kimiko horiek guztiak Lurrean sortu ziren edo kanpotik iritsi ziren batzuk, adibidez, kometen bitartez?

Badakigu milioika tona meteorito erori zirela Lurrera; beraz, ia segurua da hainbat osagai kimiko ekarri zituztela. Gaur egun, meteorito batzuk aztertzen ditugunean materia organikoa aurkitzen dugū, gure proteinak osatzen dituzten aminoazidoak, adibidez. Horrek esan nahi du kosmoseko beste leku batzuetan materia organikoa sor daitekeela. Baliteke Lurrean bizia ahalbidetu zuen lehen zopa moduko hartako osagai batzuk kanpotik iritsi izana.

Eta zer paper jokutzen du zoriak biziaren sorreran eta bilakaeran?

K/T muga ikusteko munduko lekurik onenetako bat da Zumaia, hori badakizue. Meteorito batek Lurraren kontra talka egin eta biziaren parte handi bat desagerrarazi zueneko historia jasotzen du geruza horrek. Zoriak zerikusi handia izan zuen gertaera hartan. Meteorito hark ez balu Lurra kolpatu, gu biok seguru ez ginela orain berrikeran egongo, kafe bat hartzen dugun bitartean. Ugaztunok ez genukeen Lurraz jabetzeko aukerarik izango. Zoria existitzen da, eta funtsezkoa da biziaren eboluzioan.

Laborategian bizia sortzeko ahaleginak egiten ari zarete?

Bai, baina ez pelikuletan bezala, ez pentsa bat-batean txibi handi bat agertuko zaigunik lapikoan... Esperimentuak egin dira eta egiten ari gara. Lehen 1953an egin zuen Millerrek; hainbat gas nahastuz eta txinparta batekin aminoazidoak lortu zituen. Orduz geroztik saio asko egin diren arren, oraindik inork ez du lortu bizia sortzea. Baina asko ari gara ikasten. Biologia sintetikoaren bidetik aurrerapen handiak egin dira. Nik uste dut bizpahiru hamarkada barru norbaitek lortuko duela izaki bizidun bat sintetizatzea. Lehen aipatu ditugun hiru ezaugarri horiek (metabolismoa, inguruaz bereizten gaituen geruza eta gai genetikoak) dauzkan sistema kimiko bat izango da.

Hori mugarri bat izango litzateke zientziaren historian.

Ikaragarria litzateke, Nobel saria seguru. Eta atea irekiko luke laborategian biziá sortzeko. Baina kontuz, biziá hain da konplexua! Izaki konplexu bat sortzeko nik uste dut denbora asko falta dela.

Biziak saiakera ustelak izan al ditu? Hau da, biziá behin sortu zen eta aurrera egin du gaur arte, edo aurrez sortu eta desagertu egin zen behin baino gehiagotan?

Duela 4.000 milioi urteko Lurra laborategi erraldoi bat bezala imajina dezakegu, sumendiz josita, meteoritoak etengabe lurrazala kolpatzen, urak irakiten, kimika borborka... Seguru molekula kimikoak leku askotan hasi zirela elkarri eragiten, eta litekeena da biziá sortzeko saio bat baino gehiago gertatu izana. Baina gaur dakiguna da Lurrean biziá diren eta biziá izan diren izaki guztiak LUCAren oinordekoak direla. Biziak adaxka asko izango zituen hasiera hartan, baina bakarrak egin zuen aurrera: LUCAren arbolak.

Miresgarria da biziak duen gaitasuna aurrera egiteko, hondamendi handienak ere gainditzeko. Zer mekanismo ditu?

Biziak aniztasun handia sortzen du oso azkar, eta horrek sendotasun handia ematen dio. Espezie bat desagertu daiteke, baina beste batek hartuko du haren lekua. Lurraren historian, behin baino gehiagotan egon da biziá desagertzeko zorian. Baina, izaki bizidun gehienak desagertuta ere, biziak aurrera egin du. Dinosaurioak akaba ditzakezu, baina ez dago arazorik, beste batzuek beteko dute haien lekua. Gaitasun hori oso interesgarria da. Litekeena da Lurrean eta Marten biziá ia aldi berean sortu izana, orduan Martek ozeano handi bat zuelako. Biziá hain sendoa denez, agian Marten ere eutsi dio, gaur egun mugako baldintzak izan arren.

Lurrean ere badauzkagu mugako egoeratan biziá diren izakiak.

Extremofiloak, bai. Tinto ibaian biziá direnak, adibidez; azido sulfurikoaren pH-a daukan ingurunean biziá dira, lasai asko. Edo Antartikan, -30eko tenperaturan; edo itsas hondoko tximinietan, 130 graduko tenperaturan biziá direnak. Horrek guztiak zer esan nahi du? Biziak egokitzeko gaitasun ikaragarria daukara, eta horrek Lurretik kanpo ere biziá aurkitzeko probabilitateak handitzen ditu. Marten hotz handia egiten du, baina agian ez da arazo; Europa sateliteko izotzak gatz asko daukara... Zoaz gatzaga batera eta ikusi zenbat espezie biziá diren!

Uste duzu guk biok biziá estralurtarra ezagutuko dugula?

Agian bai, baina ez dira izango antenadun izaki berdeak... Gero eta espedizio prestatuagoak ari gara bidaltzen Martera. Litekeena da Marten iraganeko biziáren arrastoak aurkitzea. Eta litekeena da Europan (Jupiterren satelitean) biziá aurkitzea izotz geruzaren azpiko ozeanoan. Baina erronka da leku horietara iristea gailu, tresna eta biosentsore egokiekin, eta arrasto horiek aurkitzea. Biokimikoki gure sistemarekiko ezberdina den sistema bat aurkitzeko gai izan behar dugu. Eta hori erronka handia da. ■



Inguru oso azidoan biziá dira Tinto ibaiko (Huelva,) izakiak. WIKIPEDIA.

**"BIZPAHIRU
HAMARKADA BARRU
LABORATEGIAN BIZIA
SINTETIZATZEA
LORTUKO DUTE"**

**"AUKERA HANDIAK
DAUDE BESTE
PLANETAREN BATEAN
ERE BIZIA
GERTATZEKO"**

Bakarne eta Bitoren Gorostola Iribar: San Telmo kaleko esentzia

TESTUA: IMANOL AZKUE

ARGAZKIAK: GOROSTOLA IRIBAR SENDIA

Duela urte batzuetatik, Kantauri plazan bizi dira, baina bi ahizpen oroitzapenek sarritan San Telmo kalera eramán gaituzte, han bizi izan zirelako urte askoan; hizkera eta kontakizuna jostaria eta bizia dute, tarteka gero eta gutxiago entzuten den dxi eta dxa-rekin: jaxxo, zidxon, agiridxa... Ez omen dakite zer kontatu, baina behin hasita, gero zeinek isilarazi...

Bakarne (1933) eta Bitoren (1936) Gorostola Iribar San Telmo kalean jaioak dira biak, eta kalearen izenaren inguruan hasi gara hizketan: antzina Zubiaurre zela, eta kalearen muga, goialdean, gorostolarren etxea zela (Praktikoenekoa, San Telmo 6). Aita Fortunato zuten; ama, berriz, Luisa, getariarra, Loidi baserrikoa. Familia osoa, ordea, *toreroanekoa* dira, eta horretaz galdetuta, eman digute azalpena: “Gure aita Sevillara joan omen zen, toreatzera, eibartar batekin, koleta eta guzti, eta harrezkero esan zioten ‘Hemen toreroa!’, eta handik ezizena; gaztetan, Pakitarekin [Porrajarekin] Lasturrera ere joaten omen zen, zezen txikiak apartatzera-eta”.

Bederatzi seme-alaba izan zituzten gurasoek; horietatik,

bat jaio eta segituan hil zitzairen, eta beste bat bi urterekin; beraz, zazpi atera ziren aurrera: Karlos, *Joxe Manu*, Jesus eta Migel, mutilak, eta Luisa, Bitoren eta Bakarne, neskak.

Aita Fortunato itsasoan ibili zen, baina estomagotik gaixotu eta Balenciagarenean hasi zen lanean. Osasunak ez zion asko lagundu, ordea, eta amak atera behar izan zuen familia aurrera: “Koltxoiak egiten zituen, artilearekin, eta garbitzen-eta laguntzen ibili zen Justanean (tabernan), eta beste leku askotan: Hotel Urangan, Amayan, Etxabe Kuarton, etxe partikularretan, baserrietan, asteburuetan Debako hotel batean...”. Gerra garaiko eta ondoreneko kontuak presente dauzka Bitorenek, eta amorrúa eta mina nahasten zaizkio azaltzean: “Asko ikusitakoa izan zen gure ama, eta goian zerua eta behean lurra! Hari egin zizkietenak...”: ez zioten eman nahi izan paper berezirik gizonarentzat janari berezia (semola) lortzeko, baina amak beste bide batetik lortu zuen; gizona kamillero eramán nahi izan zuten Gerrara, baina amak aurre egin eta ez zuten eramán; behin Kuartelera ere deitu zuten, albergan *mugimenduaren* kontra gaizki hitz egiteagatik eta multa ere jaso zuen (gordeta daukate)... “Gizona gaixoa eta horrenbeste

ume, nahikoa lan bazeukan andre hark gu denok aurrera ateratzen. Gure ama gogorra izan zen, baina erakutsi egin zioten gogorra izaten...”, azaldu du.

Bizi eta gogotsu hitz egiten dute txikitako San Telmo kaleko ez akordatzean, etxeak eta bizilagunak: Txonpenekoak, Uribenekoak, Tximinenekoak, Romanenekoak, Lidianekoak, Barinaganeakoak, Bonbillokoak, Makibarrenekoak, Porrajaneakoak..., eta izenak: Dolores, Trino, Pepita, Pakita... “Garai hartan, calle San Telmon, denak ziren etxeoak eta ezagunak, guk beti ezagutu genuen etxea jende edadetuarekin; atariko atea beti zabalik, eta bi eskailera maila jaitsita, gure etxeko atea ere beti irekita”.

Itzuruna eta ermitara orain baino askoz ere jende gutxiago joaten zen: “Plaiara geu bakarrik joaten ginen, kalekoak, eta San Telmoko ermita sostenitu, geuk egiten genuen: serora, garbitu, txukundu, gauza berriak erosi... Kalea apaindu ere bai, festetarako: Zelaiarenean berdea hartu, sokak eta paperak etxex etxe eskatu eta gero jarri...”. Itzurunen ikasi omen zuten igerian, eta Arranplaz galdetuta, han ez zirela ibiltzen erantzun: “*Txinbi*-k [txaperoak] ez zigun



Emakume kuadrilla maluteroarekin. Udazkenetan baserriz baserri joaten ziren, artoari zorro zuria kentzera, gero arrantzan erabiltzeko. Bakarne eskuinaldean, goian (zuriz).



Bakarne eta Bitoren, 1953 inguruan.



Bakarne 1963n, Parisen, Bakarne ilobaren bataioan.



Luisa Iribar Bakarne ilobarekin, Parisen, 1965ean.



Bakarne antzerkirako prest, Miren Aperribairen eta Antonio Eizagirre Larretxeren ondoan.



Bitoren elegante-elegante, Zestoako Arozenan, Susana Ibarren ezkontzan.

lagatzen neskei, eta askotan mutilei ere ez”.

Gerra ondorenean, goserik ez zuten pasa, baina nahi zutena ere ez zuten jaten: “Ogia ere honelakoa [txiki-txikia], eta begia tuerto uzteko modukoa, gogor-gogorra”, dio Bitorenek. Sutarako egur bila ere ibiltzen ziren, Zakariasen astillerotik, Periko Ostolazaren tailerretik... hartuta; ikatza ere erabiltzen zuten, *galleta* esaten ziotena, xehe-xehea, koskorrik gabea: “*Maria Aurorak* [itsasontziak] ekartzen zuen, eta egurraren gainean botata, sua sostenitu egiten zuen”.

Eskolan mojetan ibili ziren biak, eta ez daukate haien errekuerto onik, mojaren bat kenduta ez bada. Gainera, orduan, eskolak baino lehentasun handiagoa zeukan etxeko martxak, eta beti zegoen zer egina: mandatuak egin, umeak zaindu, amari lagundu... Elizarekin ere ez zeukaten lotura esturik: “Elizara, gu, gutxi. Joaten ginen, baina ama ez zen izan obligatzekoa. Gure amak esaten zuen: ‘Elizan egin behar dena kanpoan egin behar dun’”.

Bakarne amarekin hasi zen lanean, etxeak garbitzen-eta, baita Hotel Urangan, Amayan... Provostenean (Arrangoletan) eta Ortizenean ere ibili zen, arrainarekin, eta artazuritzen ere bai, arrantzarako,

maluteroarekin. Hogeita bi urterekin Parisa joan zen, neskame, Kondesa baten etxera, eta berrogei urteko egonaldia egin zuen han. Frantsesik jakin gabe joan zen, baina laguntzeko han zeukan, aurretik joanda, Luisa ahizpa. Han Euskal Etxearen bueltan ibiltzen ziren, eta ondo gogoan dauka orduko giroa, gizartea borborka: hara ikastera joandako gazteak, 68ko maiatza... Hemendik joaten zirenei-eta laguntzen zieten, eta lehengo Eusko Jaurlaritzakoak ere ezagutu zituzten.

Akordatzen da nolako txokea izaten zen horien eta gazteen artean, eta Bitorenek badu anekdota, Leizaolaren hitzaldi batekoa: “Han ari zen, erdaraz, etorkizunean egin beharrekoaz, ‘Cogemos el timón y...’, eta entzuleen artean, batek, ‘¿Qué timón?’”, batzuek ez zutelako ikusten han lemarik. Neskame joanda zeudenak elkarrekin ibiltzen ziren, batetik bestera, saltsa guztietan, eta Bitorenek orduko ikurrina bat atera digu, ia erlikia: “Denen artean egin zuten, eta gure Luixitak josi; hau ibiltzen zuten denean: 68ko maiatzean, Burgosko epaiketa zela eta, Txiki eta Otaegirenean...”.

Bitoren, berriz, 9 urterekin hasi zen lanean, Provostenean, antxoari burua kentzen: “Gu ailegatzen ez laneko mahaira, eta harri batzuk jartzen zizkiguten lurrean, gora



Fortunato Gorostola San Telmo kalean, 1940 inguruan.



Bakarne eta Bitoren etxeko terrazan, 2018ko abuztuan.

igotzeko”; gogoan du behin nola alde egin behar izan zuten, ezkutura: “Inspektoreak datozela’, eta gu denok saltaka goitik behera; ‘Joan direla!’, eta gu gora”, dio algaraka; Getarian ere aritu zen lanean, antxoarekin, eta akordatzen da nola esaten zien nagusi italiarrak: “¡Cantar, cantar, que a nadie le ofende!”. Erretiroa noiz hartu zuen galdetuta, hitzetik hortzera erantzun digu: “Erretiroa? Inoiz ez! Ama

edadetua, lau gizon gurean eta kanpoko lana utzita etxearen ardura hartu nuen. Honek [Bakarnek] bai! Lan asko egin omen du, kupoa beteta, eta horregatik ez du lanik egiten orain. Ni golpe!”, dio barrez, eta Bakarnek “Hiiiiiiiiiii! Nik egiten dinat”, ahizparen adar jotzeari erantzunez.

Orain ondo bizi omen dira, eta paseatzea dute afizio nagusia, herrian, Santiago aldera... Balkoira irten gara,

argazki batzuk ateratzera, eta kanpora begiratuta, ederki ikusten dira Gernika parkea, ibaiia eta urrutian itsasoa. San Telmo kalea Parrokiatz beste aldera dago, ezkutuan, eta Paris urruti, 800 kilometro ingurura; hemendik, ordea, ederki sumatzen dira biak. ■■■■

OHARRA

Eskerrik asko Pello Aizpururi, laguntza guztiarengatik.



PUBLIZITATEA



NOIA S.L.

TAKERRAK ETA KARROZERIARIK

Etengabeke garabi zerbitzua **930 86 70 12 (Zumaia)**
089 83 44 30 Oñier-Dubai

Hego kalea, 83 (Estacion)
 20750 - Zumaia
 Tel.: 943-86 13 63
 zumaia@carrocera.noia.com

Iturriz Indurategui, C
 20820 - Iturriz-Doba
 Tel.: 943-80 92 91
 noia@carrocera.noia.com www.carrocera.noia.com



OLIDEN
 KONSTRUKTIOA I IZIRNIA, S.L.

647 84 81 56
 888 91 12 97
 oliden@olidenizirna.com

OLIDEN **IZIRNIA**

IZIRNIA 10 30
 48114 10 31
 www.oliden-izirna.com

KARABATZE I ZUMAIA
 www.karabatzeizirna.com

Talaxa
 Iturriz
 Oñier-Dubai
 Iturriz-Doba
 Iturriz-Doba
 Iturriz-Doba
 Iturriz-Doba

Iturriz-Doba (Iturriz-Doba)
 Oñier-Doba
 Oñier-Doba
 Oñier-Doba
 Oñier-Doba



OSA BERNIZATUAK

Zoruen kutzilaketa eta bernizaketa
Parketa jarzea

Estazioko kalea, 13 • Tel. 943-86 14 13 • 800 30 41 40



OSKARBI KIROLAK

Araia Auzategia, 14 • Arzonatti, 1 • Tel. 943-83 31 12
 www.oskarbi.com



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZINAK, S.L.

José Mari Korta Indurategui, A1 - 8. gail. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel. 943 86 52 68 • Fax 943 86 13 45
 www.ostolaza.com • e-mail: oostolaza@ostolaza.com

Ostolaza
 altzariak

Tel.Fax: 943-86 13 45
 Iñaki Beasabe Oñier-Doba, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 iostolaza@ostolaza.com • Tel. 943 86 13 45 • www.ostolaza.com

Rosi Garbiketa

Etxeak eta dendak
Enpresa eta buzo larrik
Arropak garbiketa eta lindiaketa

Basak, 3-A Tel. 943-01 03 33



SOLOZABAL
 autoeskolak

Etkezaretza, 19 • 943-861416
 zumaia@solozabalautoeskolak.com

Talaxia
 taberna • jatetxea

Santiago sarea, 4 Tel. 943-14 33 79



Tapaia
 - jatetxea

Estazioko kalea
 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 tel. 943-86 14 13

TTAKUN TABERNA

TTAKUN [eniform], 3
 Tel. 943-86 52 89

TXALAPARTA
 GRABIAK

Jugosko Sarea, 2
 20750 ZUMAIA
 (Gipuzkoa)

Tel. 943-14 36 89
 Fax: 943-07 96 07

TXIMISTA
 garagardologia

Ogiartandak
 Pizte/lorberrak
 Txerri-urondak (hondoa)
 Sateiak, wiskoiak
 Garagardokidurak

Oñier-Doba plaza, 4 beheko Tel. 943 5 07 925



UKENDU
 PARABOTIKA
 BELARDENDA
 Altzabur Etxebarria Garro
 Farmazialana

Kantabri plaza, 2 943-86-09-82 www.ukendu.com

UZKUDUN
 taberna

Estazioko Garagardoko plaza, 13 • 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
 Tel. 943-11 63 87



SAMTALTZARIAK

Amasiko plaza, 13 Tel. 943-86 33 85
 www.samtaltzarriak.com

yoana
ileapaindegia

Amasiko plaza,
 2 beheko
 943-14 32 78



Katarsiaren ordua

THE GRACE OF DIONYSUSEK DISKO BERRIA ATERA DU

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

The Grace of Dionysus hirukoteak *Katharsis* izeneko diskoa atera du. Edozein festa dionisiakotarako aproposak diren bederlatzi kanta jaso dituzte bertan.

Christos Foufonisek (gitarra eta ahotsa), Abraham Larrañagak (baxua eta ahotsa) eta Ion Sarasketak (bateria) osatzen dute power trio hau. 2009. urtean hasi zuten abentura eta bederlatzi urte behar izan dituzte lehen diskotzat jotzen duten *Katharsis* ateratzeko. Aurretik, 2001. urtean, taldearen izen bereko lehen maketa bat atera zuten. “Denbora honetan taldearen soinua kontsolidatu dugu. Bluesaren oinarria mantendu dugu, baina denborarekin gurea dugun soinua izatera heldu gara”, dio Foufonisek.

Orain bi urte inguru hasi ziren abestiak grabatzen. “Berez ez zen disko baterako”, dio Larrañagak. “Grabatzen hasi ginen ikusteko ea zer ateratzen zen. Dena gorpuzten joan zen, baina teknikariak, Iñigo Lllavorik, lanagatik denborarik ez zuen, eta dena atzeratu egin zen”. “Hasiera hartan presarik ez genuen”, dio Sarasketak, “baina erabaki bat hartu behar izan genuen. Dena hainbeste luzatu zen!”.

Erabakia Eñaut Gaztañaga



The Grace of Dionysus.

Grises taldeko kidearen eskuetan jartzea izan zen. Pozik daude hark egindako lanarekin. “Hasieratik ulertu zuen zer nahi genuen eta diskoan primeran islatu du. Ez genuen nahi kantak gehiegi makillatzerik, ez genuen su artifizialak nahi, gu garena izan nahi genuen”, dio Larrañagak. “Eta gero hari utzi diogu lan egiten. Proposatu digun guztia sartu dugu”, jarraitu du Sarasketak.

Paula Estevez artista arduratu da diseinuaz. “Etxepare saria irabazi du. Elkar ezagutzeko bildu ginen eta hark ere hasieratik ulertu gintuen”, diote.

Horren guztiaren emaitza *Katharsis* da. “Prozesu baten katarsia da. Genuen guztia eman dugu, hustu egin gara, dena abesti hauetan sintetizatu dugu eta orain sendoagoak eta erritmikoagoak gara”.

Taldearen bizkarrezurra den bluesa eta rocka mantentzen dituzte, eta horiei ñabardurak gehitu dizkietela diote: “Oinarria, esentzia, hor dago, Led Zeppelin eta Deep Pupleetik hasi eta nahi duzunera arte. Esentzia hori nahigabe ere aterako da. Baina gero gure soinua osatzen duten ñabardurak daude: garajea entzun daiteke, soula, funka, stonerra, post punka ere bai. Diskoa entzun duen jendeak esan digu taldearen soinua duela. Hori handia da”, dio baxu jotzaileak. “Disko batzuetan badakizu zer entzun behar duzun. Honekin ez, disko hau entzuten duzu eta oraindik harritu egiten zaitu. Prozesua luzea izan da, baina azkenean ondo atera da. Nahi genuen diskoa atera dugu”, nabarmendu du Foufonisek.

Idazle sindikalista



NAGUSIA KANPOAN BIZI DA. 1928ko martxoaren 15a

Egilea: Takiji Kobayashi
Argitaratzailea: Katakarak
Argitarate urtea: 2017
Orrialdeak: 276
Generoa: nobela



TESTUA: ASIER ARAKISTAIN

Katakarak argitaletxe iruindarraren eskutik Japoniako XX. mendeko idazle garrantzitsuenetako bat irakurtzeko parada dugu, Takiji Kobayashi.

Iragan mendearen hasieran, Japoniako gizartea aldaketa betean zen, mendeetako feudalismo batetik burgesia berri baterantz mudatzen ari zen. Aldaketa hark, ordea, ez zien herritarrei inolako onurarik ekarri, nekazariak gosez jarraitzen baitzuten eta hiriko fabriketan lanean hasitako herritarren baldintzak ez ziren askoz hobekiak. Bestelako gizarte eredu bat posible eta beharrezkoa zela uste zutenak baziren, hala ere, eta berau lortzeko buru-belarri aritu ziren borrokan, eta askok larrutik ordaindu zuten.

Takiji Kobayashi ez zen garai haietako testigu soil bat izaten konformatu eta hobekien egiten zekiena baliatuz, hau da, idazten, injustizia ororen salaketaz gain, bestelako gizarte

eredu baten aldeko akuilu lanak egin zituen bere jardun literarioa baliatuz, ez alferrik Japoniako alderdi komunistako kide baitzen.

Garai haietan ohikoa zen bezala, esku artean dugun liburu honetako bi nobelak atalka argitaratu ziren, *Nagusia kanpoan bizi da* lana *Senki* (gera bandera) aldizkarian; 1928ko *Martxoaren 15a*, berriz, *Chuookooron* (aldizkari zentrala) agerkarian.

Nagusia kanpoan bizi da lanean, azken mendeko 20ko hamarkadan Japoniak bizi zuen modernizazio prozesuaren erretratuaz azaltzen digu bere gordintasun osoan, feudalismotik gizarte industrialerako aldaketa betean, non lurren jabeak hirira bizitzera joaten diren bitartean, nekazarien egoera egunetik egunera gero eta larriagoa bihurtzen den.

1928ko *Martxoaren 15an*, aldiz, Japoniako langile mugimenduaren aurka Estatuak egin zuen makro operazio erraldoiaren

testigantza ematen da. Bertan antolaketaren beharraz mintzo da, militantziaz, baina, oro har, tortura da lan honetako gai nagusia.

Ia mende bat igaro arren, bi nobela hauetan jorratzen diren gaiak ez dira iraganeko kontuak; klase subjektuaz mintzo da, burgesiak nola nahi duen langile klase isil eta menpekoko, nola eredu berri baten alde antolatu eta borrokatu behar den eta nola ez, estatu guztiek, Japonian zein edonon, errepresioa darabilten bere esanetatik irteten direnak zigortzeko.

Sarri fikzioa eta errealtatearen arteko muga ikusezina da eta Takiji Kobayashiren kasuan hala dela esan genezake, larrutik ordaindu baitzuten bere jardun literarioa, 1933. urtean Tokkok, Japoniako polizia inperialak, atxilotu, torturatu eta erahil baitzuen.

Bada esaldi bat Takiji Kobayasik idatzi zuena eta neure egiten dudana: "Irakurtzen dudalako egin nintzen sindikalista". ■■■

Mitoak apurtzen



JOSE MARI AZKUE

Musikari klasikooi musika mota hori bakarrik gustatzen zaigulako mitoa oso zabalduta dago gaur egun. Ematen duenez, oso arraroa egiten da jende askorentzat musikari klasikoak rock kontzertu edo indie festibal batean ikustea, eta behin baino gehiagotan egin didate galdera hau: “Baina zuei gustatzen al zaizue mota honetako kontzertuetara etortzea, dagoen oihu eta zarata guztiarekin?”

Musikari klasikoaren irudia pertsona isilarena izaten da, bere gelatxoan ikasten edo konposatzen egun guztia pasatzen duenarena. Rock edo pop musikari batena, aldiz, egun guztian juergan dabilzanena eta denbora oso gutxi entseatzeko dutenena.

Kontzertuak ere ildo beretik doazela pentsa genezake, kontzertu klasikoko bat gauza serio eta araez beterikoa; rock kontzertu bat, berriz, algaraz beterikoa, alaia, burrunda askokoa.....

Orain dela mende batzuk opera batera joatea gaur egungo rock festibal batera joatea baino eroagoa zela

esango banizue, zer pentsatuko zenukete?

B. Marcellok, bere *Teatro a la Moda* liburuan, Veneziako opera antzokietan XVIII. mendean bizi zen atmosfera deskribatzen digu. Pasarte batean, kontatzen digu nola jendea janari eta edatekoarekin antzokietara sartu eta han bertan opera entzuten zuen bitartean barbakoak nola egiten zituzten, eszenatokian abesten ziren kantak abeslariarekin batera kantatzen zituzten bitartean. Noski, arau batzuk ere bazeuden. Adibidez, antzoki barruan esku hutsik borroka egitea onartuta zegoen, baina ezpatekin egitea guztiz debekatuta zegoen, horretarako kaleak zeudela zioten.

Ezpata dueluak aipatu ditugunez, oso famatua izan zen G.F Handel eta J.

**DUELA MENDE BATZUK
OPERA BATERA JOATEA
GAUR ROCK FESTIBAL
BATERA JOATEA BAINO
EROAGOA ZEN**

Mattheson konpositoreek izandakoa, Matthesonen opera baten erdian. Mattheson konpositore bikaina izateaz aparte, abeslari aparta zela ere iritsi zaigu. *Cleopatra* operan bere buruarentzat espresuki idatzi zuen pertsonaia bat; Handel, berriz, gau hartan bibolina jotzen ari zen orkestran. Emanaldia hasi eta berehala, zuzendariak zeukan mozkorra zela eta, opera gelditu eta Handelek jarri behar izan zuen zuzendari. Operaren erdialdera, Matthesonek interpretatzen zuen pertsonaia hil zen momentuan, Handelengana joan eta zuzendari lanak berari lagatzeko eskatu zion. Handelek uko egin, ezpata atera eta borrokan hasi zirela diote orduko kronikariek. Duelua Matthesonek Handeli ezpata bihotz aldean sartu zionean bukatu zen. Zorionez, Handelek operako partitura bihotz aldeko poltsikoan zeukan eta horrek libratu zuen heriotza ziur batetik.

Zer urrun testuliburuetan erakusten diguten musika klasikoaren irudi serio eta aspergarritik, ezta? ■

Patologia



JUAN LUIS ROMATET

Ez naiz medikuntzan edo psikologian aditua (ezertan ez, egia esan), baina bildumazale izatea patologia moduan ikusi beharko litzatekeelakoan nago. Kaixo, Juan Luis naiz, eta bildumazalea naiz. Liburuak, diskoak eta komikiak erosten ditut. Lehen pelikulak ere bai, baina, zorionez, hortik libratu naiz.

Idazleak, aktoreak, zinemagileak, komikigileak, argitaletxeak, musikariak, taldeak, diskoetxeak edo dena delakoak gustukoa baditugu, asko pentsatu gabe xahutzen dugu dirua haren/haien azken produktuak lortzeko, nahiz eta batzuetan disko/liburu/komiki kaskar ugarirekin amaitzen dugun. Berdin dio, bilduma osatu behar da. Egoera irigarrietara edo, hobeto esanda, patetikoetara ere hel gaitezke batzuetan. Orain pare bat hamarkada, Bristoleko trip hop mugimendua puri-purian zegoenean, Trickyren lehen diskoa erosi nuen denek maisulantzat jotzen zutelako. Bada, ez zitzaidan gustatu. Hala ere, haren hurrengo diskoa ere erosi nuen, eta hurrengoa, eta hurrengoa... nahiz eta bat bera ere ez zitzaidan gustatu. Bosgarrenean esan nuen nahikoa zela. Orain hor ditut diskoak hautsa pilatzen.

Bildumagintzako nire azken balentria uda honetan gauzatu dut. Uztailean Lyonen, Frantzian, izan nintzen egun batzuk pasatzen. Paseatzen nenbילה, disko denda bat topatu nuen. Binilozko diskoak zituen erakusleihoan eta jakitun nintzen ezingo nituela erosi bidaietarako erabiltzen dudan motxila txikian sartzen ez direlako. Hala ere sartu nintzen dendan eta diskoak bakarrik ez, komiki mordoa ere ikusi nuen. Lerde daiola hasi nintzen. Kaxetan begira, Jacques Tardi komikigile frantziarraren liburuak topatu nituen, eta haien artean azken urteotan bilaka nenbilen hura zegoen. Mugaren alde honetan agortuta dago. Bere momentuan argitaletxera deitu nuen ea nolabait lortu zitekeen, Interneteko saltokietan pelmada eman dut, bigarren eskuko dendatan galdetu dut, Madrilen denda zahar batetik bestera ibili nintzen, eta azkenean eskutan nuen. Arazo bakarra zegoen: frantsesez zegoen, logikoa den bezala, eta nik frantsesez ez dakit. Orriak pasa nituen, aurretik atzera, atzetik aurrera, ikuskatu nuen, ulertzen saiatu nintzen, baina ezin. Burumakur han utzi nuen..., hurrengo egunean berriro pasa nintzen arte. Ausart egin nuen aurrera, komikia hartu nuen (nirea zen!) baita aldamenean zegoen egile beraren beste bat ere, hura ere frantsesez. Ordaindu ("Bonjour!") eta harro atera nintzen dendatik besapean bi komikiak nituela. Eskuinera egin, 20 bat metro ibili eta kontzientzia oihuka hasi zitzaidan: "Zer egin duzu orain ere!?". Orain hemen ditut komikiak aldamenean, itzuli nintzenetik ukitu gabe, halako batean eta esfortzurik gabe frantsesa ulertuko dudalakoan. ■■■

HAIEN ARTEAN AZKEN URTEOTAN BILAKA NENBILEN HURA ZEGOEN



Rolarro eguna

IRAILAK 15

HERRI BAZKARIRAKO TXARTELAK ETA KAMISETAK
ASTEBETE LEHENAGO SALGAI TURISMO BULEGOAN.
HELDUAK 8 € / HAURRAK 5 € / ZAPIAK 1 €

Zumaiko Udala



iraila

ZUMAIA ELKARTEA

Z E


**UDAZKENDIAN ERRE
ZUMAIAN BIZI,
ZUMAIAN EROSI**

Zumaiko Udala

Clinica Dental · Hartz Klinika



Hartz klinika berria Zumaian, Ardantzabide auzoan



ANE IBARRETXE hartz klinika

Ardantzabide, 3 behea

www.aneibarretxe.com

info@aneibarretxe.com

943-54 35 70

688 73 38 56